

N

CHARAMELA



ATV
491



CHARAMELA

Gernikako Arbola

1

Gernikako arbola da bendikatua,
 Eskualdunen artean guziz maitatua.
 Eman ta zabal zazu munduan fruitua.
 Adoratzen zaitugu arbola saindua.

2

Mil'urthe inguru da erraiten dutela
 Jaunak jarri zuela Gernikan arbola :
 Zaude bada chutikan, orain da dembora :
 Eroritzen bazira, arras galdu gira.

3

Ez zira eroriko, arbola maitea,
 Baldin portatzen bada Bizkaiko juntia :
 Denek hartuko dugu zurekin partea,
 Bakean bizi dadin Eskualdur jendea !

4

Bethiko bizi dadin othoitz egiteko
 Jarri gaitezen denak laster belhauniko
 Eta bihotzetikan eskatu-ez gero,
 Arbola biziko da orai eta gero...

IPARRAGUIRRE.

Adios ene maitia

1

Adios, ene maitia, adios sekulako !
Nik eztit beste phenarik, maitia zuretako,
Zeren uzten zutudan libro bestendako.

2

Zertako erraiten duzu adio sekulako ?
Uste duzia eztudala amodio zuretako ?
Zuk nahi balin banaizu enukezu bestendako.

Adios izar ederra

1

Adios, izar ederra, adios izarra !
Zu zare Aingerua munduan bakharra !
Aingeruekin (*bis*) zaitut komparatzen.
Zembat maite zaitudan ez duzu phensatzen !

2

Adios, izar ederra, eta khariua,
Neure begiatako lili arrarua !
Bihotzez zure eta gorputzez hemendik ba-
Jarrikiren zautazut zur'amodiua. [nua,

3

Izan naiz Arraguan eta Kastilloan,
Hitz batez erraiteko España guzian ;
Ez dut ikhusi (*bis*) zu bezalakorik,
Nafarroa guzian zaude famaturik.

4

Jarraikitzen ninduzun izar eder hari
Nola mariñel ona bere orratzari.
Oi jende onak, atenzione ene solas huni :
Etzieztela fida amodioari !

Agour Ziberoua

1

Sor lekhia utzirik gazte nintzalarik
Parisen sarthu nintzan kourajez betherik,
Plazerrez gose eta burian harturik
Behar niala alegera bizi.
Bostetan geroztik
Nigar egiten dit
Ziberoua zouri !

ERREPIKA

*Agour, Ziberoua !
Bazter guzietako chokorik eijerrena,
Agour sor-lekhia !
Zouri ditzit ene ametsik gochouenak.
Bihotzian erditik
Bostetan elkhi deitadazut hasperena.
Zu utziz geroztik
Bizi niz trichterik,
Abandonaturik,
Ez baita herririk,
Paris ez bertzerik.
Zu bezalakorik !*

2

Palazio ederretan gira alojatzen
Eta segur goratik aide freska hartzen.
Gain behera soñuk betzait uduritzen
Orhi gañen nizala agitzen ;
Bena ez dira hemen
Bazterrak berdatzen,
Choriak kantatzen !

Ametsa, lagun nezak ni Atharratzera,
 Ene azken egunen han iragaitera,
 Orhiko choriarenen kantuz behatzena,
 Pharka ditzan nik egin nigarrak.
 Hots, Ziberotarrak,
 Aintzinian gora
 Eskualdun bandera !

Agur Jaunak

Agur, jaunak !
 Jaunak, agur !
 Agur t'erdi !
 Jaun Goikoak eginak gire,
 Zuek eta bai gu ere...
 Agur, jaunak...
 Jaunak, agur !
 Hemen gire...
 Agur, jaunak !

Ai ai ai mutila !

Don Karlos'ek omen du ezpata zorrotza
Libera handi horier mozteko bihotza
Ai ai ai mutila, Don Karlos handia !
Ai ai ai mutila, chapela gorria !

Arnegin egin dute lastozko zubia
Handikan pasatzeko Don Karlos handia
Ai ai ai mutila, Don Karlos handia !
Ai ai ai mutila, chapela gorria !

Biba chapel gorria, burlia ferdia
Zaldi batean dathor Don Karlos gurea
Don Karlos maitea, gure erregea !
Ai ai ai mutila, chapela gorria !

Azpeitiko nechkatchak gona gorriekin,
Ez dute dantzatu nahi chapel churiekin,
Ai ai ai mutila, chapel churiekin !
Ai ai ai mutila, moztekō bihotza !

Ai hori begi ederra

Ai hori begi ederra !
Iduritzen zait epherra,
Gauza hoberikan zer da.
Haurtcho pollita, zapata eder,
Tchorkatilla guztiz fiña,
Jauntzi ederki egiña
Oihal modarako fiña,
Ai neretako baziña !

Ai zer plazerra

1

Ai zer plazerra bost urthen bütian sor lekilat
[ützültzia !
Ene herria etsitü nian zure berriz ikustia.
Aski sofritüz nik hanitchetan desir nükian hil-
[tzia,
Ezpazüntüdan hain maite üken, oi ama Uskal-
[Herria !

2

Hanitchen gisa partitü nintzan etsaien güdüka-
[tzerat
Gogua bero, bihotza lachü eta kasik alagera,
Ezpenakian orain ordian zer zen amaren
[beharra,
Hari phents-eta biga bostetan aiher zitazün
[nigarra.

3

Erresignula kantari eijer libertatian denian,
Bainan trichtüran higatzez dua kaiola baten
[barnian,
Gü ere, Ama, hala guntuzun tirano haien ar-
[tian,
Zure ametsa kontsolagarri trichtüra handienian.

ETCHAHUN IRURIKOA.

Aldapeko sagarraren

1

Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
puntaren puntan,
Choria dago kantari !

Chiru-li-ruli, chiru-li-ruli,

Nork aditzen othe du kantu eder hori ?

2

Zubiruru zelaieko oihanaren zolan,
zolaren zolan,
Lili bat bada beilarri !
Chiru-li-ruli, chiru-li-ruli,
Nork bilduko othe du lili charmant
[hori ?

3

Mende huntan jasan dutan bihotzeko pena,
penaren pena,
Nola behar dut ekharri ?
Chiru-li-ruli, chiru-li-ruli,
Zuk, maitea, har-azu ene pena hori !

Ama

1

Maitatua sobera, nintzelarik haurra,
Ez nakien nik zer zen amaren beharra ;
Bortu batean orai naiz bakar bakarra,
Amaz orhoit orduko heldu zaut nigarra !

2

Hegalñoak azkartzen senditz gerotzik,
Baitoazi choiak ohantze gozotik ;
Halaber joan ninduzun amaren altzotik,
Ahanzia bainute herrian engoitik !

3

Bainan ama gaichoak ez nu ez ahantzi,
 Maiz daut Eskual-Herritik igortzen goraintzi ;
 Hautsi nion bihotza nuanean utzi,
 Neretzat baizik ez da halere han bizi.

4

Nik ere bero daukat bihotzean garra :
 Jinkoak piztu zauntan eskualdun pindarra.
 Ama baitut oraino minetan indarra,
 Ama, gau ilhunean argidun izarra !!!

5

Ene bortu gainetan baniz enheatzen,
 Gaizkirat balimbazaut bihotza lerratzen,
 Zure begi garbiez, ama, naiz orhoitzen
 Eta lanari gero kuraietkin lotzen !

6

Oi ! maiz ametsetarik izan dut gogoan
 Gochoki nindagola lehen ohakoan :
 Aingeruer begira, gambara chokoan,
 Eta, zu, hantchet irriz ama ner'ondoan !

7

Frangotan huts ohiez orhoitzen ere niz...
 Ama ! gazte dembora berriz haste balitz ?
 Nigar eginarazi dautzut anhitz aldiz,
 Nigarrak niri zauzkit jauzten orai borthitz !

8

Aspaldi du naizela sor-etchetik joana,
 Hamargarren urthea hurbil iragana ;
 Noiz othe naiz hemendik jinen zure gana,
 Ama, saristatzera zor dautzutan lana ?

Untziak noiz nu berriz horrat eremanen ?
 Etcherako bidechka noiz dut nik iganen,
 Eta zutarik, ama, musu bat ukamen ??
 Oi ! ba, laster dautazu agian emanen !!

.....

Aho batek eztiki diolarik : Ama !
 Hitz gocho bakar horrek mundu bat derama.
 Ama baino hoberik zer ditake asma ?
 Horren maitatzen beraz gaiten oro thema !

OXBII.

Ama begira zazu

Ama, begira zazu leihotik plazara :
 Ni bezalakorikan plazan bai othe da ?

Begiak erne ditut, bi zangoak arin :
 Hoinbertze dohainekin ez nauke mutchurdin.

Muthikoen artean itzul-inguruka,
 Gizon geitzat baduzket dotzenan hameka

Heldu den primaderan arropa churitan
 Ederra izanen naiz mahain-sainduetan.

— Haurra, ahal badaite, hala izan bedi :
 Lehen gure aldi zen, orai zuen aldi.

Amodioa

1

Amodioa zoin den zoroa
mundu guziak badaki.
Nik maiteño bat izaki eta
beste batek eramaki...
Jainko maiteak gertha dezala
enekin baino hobeki....

2

Azken bestetan egin nituen
izarraren ezagutzak ;
Denen artean ageri ziren
haren begi urdin-beltzak ;
Irri pollit bat egin baitzautan,
piztu zauztan esperantzak.

3

Geroztik ere mintzatu gira,
eia nahi ninduenetz...
Harek bietan baietz erranik,
pentsa kontentu nintzanez !
Ez nuen uste haren agintza
bethea zela gezurrez.

4

Orai bihotza urthua daukat
gatza urean bezala
Izar onaren argien ordain,
izigarriko itzala !
Ohoin tzar batek berriz joanik,
nola naiteke kontsola !

Andereño bat

1

Andereño bat ikhusi nuen igande goizño batez ;
Bista berian agradatu nintzan haren begiez ;
Ezdu uste baduela parerik eztitasunez :
Ene bihotza tristerik dago harekin izan behar-
[rez.

2

— Anitz maite baduzula fama hedatu zauzu ;
Egun guziez maite berri bat egiten omen duzu ;
Horiek hola balin badira, nor fidaturen zauzu ?
Khambiatu behar duzu ni nahi balin banuzu.

3

— Baduzuia dudarik zu enetuz geroztik,
Nahi ere banukeela zutaz bertze maiterik ?
Ezdu uste baleitekela mundu huntan gizonik
Kontent bizi laitekeenik zu kitatuz geroztik.

4

— Mihian dutzun elhe ederrak bihotzian bazintu
Menturaz zure maithatzia erresoli niokezu ;
Bainan gero desplazerrik eman gogo baduzu,
Othoizten zaitut hemen berian lurrez estal ne-
[nazu !

Andre Madalen

1

Egun batean ni ari nintzen
andrea ezin ikusirik ;
Erran zautaten : « Edana dago,
ez egin hari kasurik ! »

*Andre Madalen, andre Madalen,
laurden-erdi bat olio !
Andreak zorra in-eta gero
jaunak pagatuko dio !*

2

Ene andreak badaki josten
eta lisatzen taula-gainean ;
Arno churia saldan emanik
maite du oroz gainetik !

3

Bere gizona utzirik etchean,
Hantche da bera patar batean ;
Indarrik gabe, mozkarrarekin,
Lurrerat joaiten da behin !

4

Musu emanik lur zikinari
etsaien kontra badu zer erran !
Auzo guziak partida ditu,
debru-zaharra mihian !

5

Gaichtakeriaz jo omen dute
eta aurdiki erreka-zolan !
Arno-chorta bat edanez geroz
chuti laiteke abian !

Ara nun diran

1

Ara nun diran, mendi maitea, ara nun diran
[zelaiak,
Baserri eder zuri zuriak, iturri eta ibaiak ;
Endayan nago txoraturikan, zabal zabalik be-
[giak,
Euskal Erria, lur oberikan ez da Europa gu-
[zian !

2

O ! Euskal-Erri, eder maitea, ara emen zure
[semia,

1

Bere lurraldi muñ ematera beste gabe etorria,
Zuregatikan emango nuke pozik bai nere bi-
[zia.

Beti zuretzat ill arteraño gorputz ta arima gu-
[zia,

IPHARRAGUIRRE.

Argia dela diozu

1

Argia dela diozu,
Gauerdi orain'ez duzu
Enekilako dembora
Luze iduritzen zaitzu
Amodiorik ez duzu
Orai zaitut ezagutu.

2

Othea lili denian,
Choria haren gainian,
Houa jouaiten airian
Berak plazer diainian ;
Zure eta nere amodioa
Hala dabila mundian.

3

Phartitu nintzan herritik
Bihotza alagerarik ;
Arrajin nintzan herrian ;
Har nezazu saihetsian
Bizi naizeno mundian.

Argizagiak zelütik

1

Argizagiak zelütik
Argitzen dizü eijerki.
Ene maite pollita eztüzü ageri :
Zeluko Jinko Jauna, zer eginen düt nik,
Zer eginen düt nik ?

2

Fiatik batere eztüzü,
Mündia erriz ari zaizü ;
Bathü orotzaz agrada zira zü
Bat har ezazü, hora aski dükezü,
Horrez segür nüzü.

3

Urso-aphalaren malürra,
Galdüz geroztik lagüna !
Trichte da bethi bere bihotzetik,
Zeren ezpeitü maithatü bat baizik,
Maithatü bat baizik.

4

Amodio berriak
Sendotzen tizü eriak ;
Zure begiak haiñ dira eziak,
Zeren beitira eniak zuriak,
Zuriak eniak.

Argizari ederra

1

Argizari ederra, argi egidazu,
Bide luze batean joan beharra nuzu !
Gau huntan nahi nuke maitia mintzatu,
Haren ganatu arte, argi egidazu !

2

« Nekaturik heldu naiz bide luze huntan,
Urhats pauza guzian bethi phentsaketan ;
Athorra bustia dut bulhar-errainetan,
Idortu nahi nuke su ondoño hortan ! »

3

— « Athorra busti hori garreia ezazu
Nik hola manaturik bustia ez duzu !...
Bidean eman gabe, kontu zuk egizu,
Bidearen buruan nahi zaituzten zu ?

4

— « Ez deia bada pena eta dolorea,
Nihauen maiteñoa hola suntsitzea !
Amets bat egin nuen zuk ni maitatzea...
Zombat deithoragari hol'enganatzea !!! »

Arno onaren gozoa

1

Arno onaren gozoa
Huntan da neure gozoa.
Mundu huntan bizi naizeno
Zainetan odol dutano,
Santa sekulan ez diot erranen
Arno onari adio.

2

Aurthen arnoa merkhe da
Lau bortz sosetan pinta da :
Andrek ere edaten dute
Erreberua bezala,
Batek bertzeari diotelarik
Mottoak chuchen detzatela.

Baserritarrak

1

Baserritarrak gera gu
Ez dezakegu ukatu,
Bañan hiritarrak besañ ongi
Soinua (*hiruetan*) jotzen degu.
Tralera...

2

Mundu hunetan bi gauza
Nik maite ditudanak :
Ardotcho-tcho-tchuri eta
Ogi mami (*hiruetan*) biguna.
Tralera...

Bazterretik bazterrerat

1

Bazterretik bazterrerat, oi munduaren zabala !
Ez dakienak erran liroke ni alegera nizala :
Hortzetan dizut irria eta bi begietan nigarra.

2

Kalla kantuz ogi-petik uztaril-agorriletan !
Maitea-ganik etcherakoan entzun izan dut bortzetan
Amodioak bainerabilka haren athe-leihoetan.

Kukuak umiak chilo ttipian haritz adarren gainean ;
 Ama ni ere ezkondu nahi, adinak ditudanean :
 Ene lagunak eginak dire joan den aspaldi handian !

Primaderan zoinen eder den brioletaren lorea !
 Aspaldian nik ez dut ikusiene maitiaren begia
 Balinba gaichoak ez dut ahantzi eman zerautan fedea.

Orhoitzen nuzu, orhoitzen bethi; ez zaitadazut ahanzten:
 Oi Madalena batek bezanbat mundu hantan dut sofriz
 Jaten dutan ogia ere dena nigarrez bustitzen. [tzen

Gaua ilhun, bidea luze, ez dea pena handia ?
 Bai ikusterat jiten gizaitzu, oi izar chamagarria !
 Othoi athea, idek-aguzu, zuk, tendreziatz bethia !

Gaua luze izana gatik, argi eskasik ez dugu :
 Izar eder bozgarri hora leihoa omen dagozu :
 Gu etchean sartu artino, haren argituren dauku.

Begiak farrez

Begiak farrez farrez, bihotza nigarrez (berriz)
 Halachet joaiten nintzan maitia, zuganik dolorez....
 [ai ai ai... (ber.)

Chorignoa kaiolan egoiten da triste (ber.)
 Ni ere ez naiz kontsolaturen, zu ikusi arte,
 [ai ai ai... (ber.)

Nere maite pollita, zu non zira bizi (ber.)
 Joanden aspaldi, ene maitia, ez zaitut ikusi,
 [ai ai ai... (ber.)

Palazio eder bat haitzaren gainian (ber.)
 Ez da euririk sartzen maitia, atheri denian
 [ai ai ai... (ber.)

Arrosarikan ez da arhantzerik gabe (ber.)
 Ez eta ere amodiorik penarikan gabe ai ai ai... (ber.)

Bereterretchen Kantoria

1

Haltzak ez du bihotzik,
Ez gaztamberak ezurrik.

Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezur-

2

[rik.]

Andozeko ibarra,
Ala zer ibar luzia !

Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

3

Bereterretchek oheti
Neskatuari eztiki :

« Abil, eta so egin ezan gizonik denetiz ageri? »

4

Neskatuak berhala,
Ikhusi zian bezala,

Hiru dozena bezabiltzala bortha batetik bestera.

5

Bereterretchek leihoti
Jaun kuntiari goraintzi

Ehun behi bazereitzola beren zezena ondoti.

6

Traidore batek bezala :

« Bereterretch, aigu borthala : utzuliren hiz
[berhala.] »

7

— « Ama, indazut athonra
Menturaz sekulakua !

Bizi denak orhoit ukhenen du Bazko-gaiherdi
[ondua !

Marisantzen lasterra
Bostmendietan behera !

Bi belhañez herrestan sartu da Lakharri-Bus-
9 [tanobira.

— « Bustanobi gaztia,
Ene anaie maitia,

Hitzaz bunik ez balinbada, ene semia juan da. »

— « Arreba, ago ichilik !
Ez othoi egin nigarrik !

Hire semia bizi bada, Mauliala dun juanik. »

Marisantzen lasterra
Jaun kuntiaren borthala !

« Ai, ei, eta, jauna, nun duzie ene seme ga-
12 [lanta ? »

— « Hik bahiena semerik
Bereterretchez besterik ?

Ezpeldo-altian dun hilik; abil, eraikar bizi-
13 [rik... »

Ezpeldoiko jentiak,
Ala sendimentu-gabiak !

Hila hain hullan ukhen-eta deusere ez zakienak!

Ezpeldoiko alaba
Margarita deitzen da :

Bereterretchen odoletik ahurka biltzen ari da.

Ezpeldoiko bukhata,
Ala bukhata ederra !

Bereterretchen ahorretarik hirur dozena umen
da.

Bidarraitarra

Mila zortzi ehun hemeretzian,
Urriaren ilharen bederatzian,
Omore ona nuien hauien kantatzian ;
Gazt'eta alegera trankil bihotzian,
Deusik ez etchian :
Orai bezain aberats nintzen sortzian.

2

Nor nahik zer nahi erranikan ere,
Bidarraitarra nuzu, bai nahi ere ;
Etcheko seme ona, segurki halere,
Nahiz baden herrian hobechagorik ere ;
Baditut bortz haurride, enekin sei dire.

Oro adichkide,
Dotiaren gainetik samurturen ez gire.

3

Aita ezkondu zen gure amarekin,
Ama aitarekin, biak elgarrekin ;
Orduian gazte ziren, bertze zerbaitekin,
Eta orai zahartu miseriarekin ;
Ontasuna igorri bertze haurridekin,

Parte bat enekin :
Enekin baino haboro bertze bortzekin.

4

Aita zen etcheko, ama kampoko :
Jainkoak egin'tu elgarrekilako.
Hirur muthiko eta hirur neskatoko,
Haurrik aski badute aisa bizitzeko.
Balinba bertzerik ez zaie sorthuko,
Ez da fidatzeko ;
Arraza nasaietik baitire, horra zertako.

Adinen beha gaude egia erraiteko,
 Gure ontasun ororen partitzeko.
 Diru idorra ere bada bizikichko,
 Jainkoak daki zembat den bakhotcharen dako ;
 Izaiten badugu ez dugu utziko
 Auzokuendako ;
 Bainan ez daikegu sakelarik erreko.

Botoila bana arno edan dezagun.
 Lehenik ona denez jasta dezagun,
 Ona balin bada bira edan dezagun.
 Trinka dezagun, plazer har dezagun,
 Bilha zembait lagun.
 Diru dianak izanen dik ezagun.

Etcheko anderia, zure trichtia,
 Iduritzen zaitzu girela diru gabia.
 Dirua badugu, bainan dugu larria ;
 Zor utziren dautzugu gaurko afaria.
 Etcheko anderia, emazu guardia,
 Har pazientzia,
 Noizbeit izanen duzu pagamendia.

J. OXALDE.

Bizi naiz munduan

Bizi naiz munduan	Izar batekilan
Aspaldi handian	Hura ezin ihus
Bethi trichezian	Plazer dudanian,
Penak bihotzian.	Ez baitut etchian
Amodiotan nintzan	Ez eta herrian.

Aira banindadi
 Ainhara bezala,
 Ardura joan nainte
 Maitearen gana :
 Nere pena-changrinen
 Hari erraitera
 Bai eta doloren
 Hari salhatzera,
 Aitaren ichilik
 Solas egitera.

Izan niz Barkochen
 Kusiaren etchen,
 Ahuntz-jaki jaten
 Segur ona baitzen
 Kostaletak errerik,
 Biriak egosirik,
 Ogia muflerik,
 Arnoa gozorik,
 Han etzen eskasik,
 Maitia, zu baizik...

Boga boga

Boga, baga, mariñela ! mariñela !
 Joan behar degu urrutira, urrutira,
 Bai Indietara.
 Ez det ez det nik ikusiko
 Zure plai ederra, plai ederra !
 Agur, agur Ondarroa-ko itsaso bazterra.
 Mariñela, Boga ! Mariñela !

Boneta eta tchapela

1

Igaran egun batez egin dugu erri ;
Hortaz nahi deitziet eman zerbait berri :
Pariserik jin zaiku bidajez Bettiri,
Ourthe bakhotch fortuna eginik uduri.

2

— Agour, eta zertan hiz, Bettiri gaizoua ?
Ene haour denborako kantuko aizoua !
Igaran duk ordunko denbora gozoua,
Eta hi aberastu, ez baihiz zozoua !

3

— Pariserik horra nuk zien ikhoustera.
Han ountsa bizi gutuk, adichkide Pierra.
Ihaourrek ikhousten duk in diat afera,
Tchapela ezarririk burutik behera.

4

— Tchapela baduk bena arin barnekoa :
Noun utzi duk boneta Eskual-herriko ?
Tchapel horrek eztereik edertzen kaskoa :
Basta ederra gatik, asto duk astoa.

5

— Ez diat ez acholik laidoen batere !
Han ezagutzen diat hanichko andere !
Itchourari so inez aberats dirare
Ezkounduren ahal nuk . ez erran deus ere

6

— Arren, baduk ideia hola ezkountzeko ?
Lagun frango badukek hortan segitzeko,
Ofizio bat balitz Parisen hartzeko,
Aberats izan gabe, aouher bizitzeko !

— Ez nuk ez hi bezala Iñian akhitzen ;
 Lan amplechagorik duk hirian agitzen.
 Ene alte hasi nuk Parisen bizitzen :
 Arruaren chokoan oskien argitzen....

— Ofizio ederra oski-argitzale :
 Har ezak emaztia ziraje saltzale.
 Haourrak jinen zaitzie gose-bazkazale :
 Utziren duk Parise ahal bezañ zalhe.

Ni ja nahi nuk egon boneta kaskoan,
 Ene sor-leku maite Eskual-herrikoan.
 Ilhourk'e jakin gabe zer dudan gogoan,
 Kobla zounbaiten hountzen supazter chokoan.

LIGUEIX.

Bortian Ahuzki

Bortian Ahuzki, hour hounak osoki ;
 Neskatila ejerrak han dira agerri ;
 Hirour badirade, oi ! bena charmantik,
 Basa-Nabarr'orotan ez dute parerik.

Neskatila ejerra, oi begi ñabarria,
 Nountik jin izan zira bortu gain hountara ?
 Ahuzkik'uthurrila hour fresken hartzera ?
 Garaziko aldetik desir nian bezala

Goizetan eder dizu ekhiak leinhuru,
 Mundi'argitzen dizu unguru unguru ;
 Ni ere zour'ondouan hala nabilazu :
 Eta maite naizunez, othoi, erradazu.

— Maithatu zuntudala badizu aspaldi
 Ezpenereizun erran orano zuhauri :
 Bihotzian eduki **phena handireki** ;
 Zuhauri erraitera oi ! ezin atrebi !

— Disimula ezazu ahalaz luzazki,
 Maite ukhenen zutut nik har gatik bethi ;
 Maite ukhenen zutut nik har gatik bethi,
 Gero izanen gira biak alkharreki.

Brodatzen ari nintzen

Brodatzen ari nintzenene salan jarririk,
 Aire bat entzun nuen itsasoko aldetik ;
 Itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik, gan nintzenama gana :
 « Hean jaliko nintzen gibeleko leihora,
 « Gibeleko leihora, itsasoko aldera ? »

— « Bai, habil, haurra, habil, erron kapitainari
 « Jin dadin afaitera, hemen deskantsatzera
 « Hemen deskantsatzera, salaren ikustera. »

— « Jaun kapitaina, amak igortzen nau zu gana
 « Jin zaiten afaitera, hantchet deskantsatzera
 « Hantchet deskantsatzera, salaren ikustera. »

— « Andre gazte charmanta, hoi ezin ditekena !
 « Iphar haizea dugu, gan behar dut aitzina !
 « Ezin ilkia baitut, hauche da ene pena. »

6

« Andre gazte charmanta zu sar zaite untzira,
« Gurekin afaitera, eta deskantsatzena,
« Hortchet deskantsatzena, salaren ikustena. »

7

« Andre gazte charmanta zu sar zaite untzira,
Han emaiten diote *lo-belharra* papora
Eta untzi handian lo dago gaicho haurra.

8

Jaun kapitaina nora deramazu zuk haurra ?
Zaluchko itzulazu hartu duzun lekura,
Hartu duzun lekura, aita-amena gortera !

9

— « Nere mariñel ona, hedazak heda bela !
« Bethi nahi nuena jina zaitak aldera !
« Ez duk hain usu jiten zoriona eskura ! »

10

— « Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna ?
« Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura,
« Hartu nauzun lekura, aita-amena gortera. »

11

— « Andre gazte charmanta, hori ezin egina.
« Hiru ehun lekutan juanak gira aitzina...
« Ene meneko zira, orai duzu orena... »

12

Andre gazte charmantak hor hartzen du ezpata
Bihotzetik sartzen'ta, hila doa lurrera !...
Aldiz haren arima hegaldaka zerura !

13

— « Nere kapitain Jauna, hauche duzu malurra !
— « Nere mariñel ona, norat aurthiki haurra ?
— « Norat aurthiki-haurra ? Hortchet itsas zo-[lara ! »

Hiru ehun lekhutan dago itsas-leihorra :
 Oi Ama Anderea, so egizu leihora...
 Zur'alaba gaichoa, uhinak dérabilia.

Buba Nignagno

Buba, ñiñaño !
 Haurra dugu ñimiño,
 Nimiño eta gaichtoño,
 eta bubaño !
 Haurra dugu ñimiño,
 Nimiño eta gaichtoño.

Bulun bat

Bulun bat eta bulun bi,
 Bulun urerat erori.
 Erori bada erori,
 Ez da gehiago ageri.
 Belun bulun buluna,
 Gero duzu muñuña,
 Bulun bulun bulun buluna.

Charmegarria

Charmegarria zira eder eta gazte,
 Ene bihotzak ez du zu baizikan maite.
 Bertze zembait bezala, othe zira libre?
 Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

2

Churi gorria zira, arrosa bezala :
 Profetak ere dira mintzo hola hola.
 Araberan bazinu gorphutza horrela,
 Iduriko zinuen... zeruko izarra.

3

Oi maitea, zatozkit, plazer duzunean,
 Nehork ikusi gabe, ilhun-nabarrean ;
 Lagun bat badukezu joaiteko bidean
 Hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

4

— Plazer eginen duzu, ichiltzen bazira,
 Haur iñorantak hola trompatzen baitira
 Ez da enetzat ina holako segida...
 Bertzalde zure baithan ez naiteke fida !

5

— Adios beraz orai, ene arraroa,
 Hori dela medio herritik banoa ;
 Bihotza trichte eta kechuan gogoa,
 Bethi jarraikiren zait zur'amodioa.

Cho cho Mariagno

Chakurrak « hau » !
 Gatiak « ñau » !
 Arnoak huntarat ekarri nau,
 Etchean sartzean,
 Andrea koleran,
 Anglesa golkoan,
 Latina mihian,
 Eskuaraz mintzatzen :

« Urde alfer tzar gizon kiskila,
 Nun egon hiz gaur ? »
 — « Cho, cho, Mariaño,
 Mochkorra jina nun gaur. »

Chori errechignoletak

1

Chori errechiñoletak ederki kantatzen,
Bazter guziak ditu choratzen.

Bard'arratsian.

Sasi batian

Biga baziren

Eder ziren

Charmant ziren,

Manera oroz,

Eta elgarrez hainitz agrados !

2

Batto arra zuzun eta bertzia emia,
Ez mirakulu parekatzia !

Han, lehen ere,

Dudarik gabe,

Ikusi ez balu,

Arra hora

Ez zen joanen

Sasi hartara,

Emia ez balitz jin bid'erdira !

3

Oi choríño gaicho heien beldurti handia
Ikustiarekin ihiztaria,

Batto han gaindi

Hain inozentki,

Pasatzen zela ;

Arra hora,

Beha jarri,

Eta hor, gero,

Sasian sartu zen, han gordetzeo.

4

Eta orduan berean, nontsu zen emia,

Sasi handian barna sartua ;
Hor aphaindurik,
Ta lumaturik,
Bere papoa ;
Kukurusta
Harroturik,
Jarri zenean,
Umez orhoitu zen, ber'ohantzean.

Chori erresignula

Chori erresiñula udan da khantari :
Zeren ordian beitu kanpouan janhari ;
Negian ezt'ageri, balinba ezta eri ;
Udan jinbaledi
Konsola nainte ni.

2

Chori erresiñula ororen gehien,
Bestek beno hobeki har'k beitu khantatzen;
Harek du inganatzen mundia bai trompatzen;
Bera eztut ikhousten
Bai botza entzuten.

3

Botz haren entzun nahiz herraturik nago ;
Ni hari hullant eta hora hurrunago ;
Jarraiki ninkirio bizia gal artino ;
Aspaldi handian
Desir hori nian.

4

Choria zouinen ejer khantuz oihanian !
Nihaurek entzun dizut igaran gaiian.
Eia ! gouazen, maitia, bi biak ikhoustera :
Entzuten baduzu
Charmaturen zutu.

Chorignuak kaiolan

1

Chorignuak kaiolan
Tristerik du khantatzen,
Duelarik han zer jan, zer edan,
Kampua du desiratzen
Zeren, zeren

Libertatia zoiñen eder den !

2

Hik, kampoko choria,
So'giok kaiolari,
Ahal balin bahedi
Hartarik begir'adi

Libertatia zoiñen eder den !

3

Barda amets egin dit
Maitia ikhusirik,
Ikhus eta ezin mintza
Eztea phena handia
Eta ezin bestia ?

Desiratzen nuke hiltzia.

Chorittoua nouat houa

1

Chorittoua, nouat houa,
Bi hegalez airian ?
España lat jouaiteko
Elhurra duk bortian.
Jouanen gutuk algarreki
Houa hourthu denian.

2

San Josefen ermita
Desertian gora da :
Españalat jouaitian
Hau da ene pausada,
Gibelilat so egin eta,
Hasperena ardura.

3

Hasperena, abil, houa,
Maitiaren bortala,
Abil, eta erran izok
Nik igorten haidala !
Bihotzian sar hakio
Houa eni bezala.

Dama Gazte

1

Dama gazte charmant bat jiten zaut bichtara,
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra !
Ama batek hazteko, hori zerbait bada !
Gure salbatzaileak kontserba dezala !

2

« Gau on gizon gaztea, kompañiarekin !
Gostu du egoitia ichtant bat zurekin ;
Badakizu mintzatzen errespeturekin,
Jainkoak har zitzala hil-ondoan berekin ! »

3

« Ene maite pollita non othe den bizi,
Bazinakikeia zuk haren zerbait berri ?
Aspaldi ikustera joan nahia bethi...
Errozu ene phartez, milaka goraintzi. »

« Ez zinukeia hobe zuhaurek joaitea,
Nitaz igorri gabe komisionea ?
Samurturen othe den ez zaitela fida ;
Zato enekin eta, biak joanen gira. »

« Jin ere banindaite zurekin gogotik,
Ez banu bihotzian deus errangurarik :
Kambiatua dela norbaitek erranik,
Hortako ez naiz joaiten, deus ez dut bertzerik. »

« Zato enekin eta errozu berari
Leheneko hitzetan dagoenez bethi ?
Disimulatzen badu, utzazu laburzki,
Ni hemen izanen naiz zure zerbitzari. »

.....

Donostiako hiru damatcho

Donostiako hiru damatcho Erreenterian dendari
Josten ere badakite, baino ardo edaten obeki
Ta kriskitin, krosketin arrosa klabedin
Ardo edaten obeki.

Iru damatcho, Donostiako, egin oi-dute apostu
Sartzen dirate tabernan eta ilkhitzentz dira ordiak,
Ta kriskitin, etc.

Donostiako neskatchatchuak kalerat nai dute-
[nian,
Ama, eztago piperrik-eta banua salto batian
Ta kriskitin, etc.

Eguntto batez

Eguntto batez nindaguelarik maitenareki leihuau,
Erran ükhen niriozün hora niala goguan,
Ene phena doloretzaz pietate har lezan.

2

Zure phena doloretzaz pietate badit nik ;
Ene khorpitz trichtiareki eztirot eman plazerik :
Zefin promes emanik nago Jinkoari lehenik.

3

Oro eijer, oro pollit, zü zira, ene maitia ;
Zure eskütik nahi nukezü bizi nizano ogia,
Eta gero ni nukezü zure zerbüttcharia.

4

Eniz, ez, ni haiñ ejerra, nulaz erraiten deitazü ?
Mündü huntako eijerrena berthütia lukezu ;
Hari ogenik egin gabe, othoi, maitha nezazü.

5

Baratzian zuiñen eijer jirofleia loratü !
Aspaldian desir niana orai dizüt gogatü ;
Hora gogatü eztüdano gaiik eztizüt mankatü.

6

Baratzian eijer deia jiroflea loratü ?
Aspaldian desir züniana orai düzia gogatü ?
Zerbütchatü zirenian berria khunta ezazü.

7

Ene maite bihotz gogor, ezpiritü zorrotza,
Orai dizut orai ikhusten etzirakedala goga ;
Amodioa utzi eta indarrez dügün boroga.

8

Jaun gaztia, othoi, pharka, haur gazte bat ni [nüzü :
Zuri arrapostü emaitez debeiaturik nuzu ;
Erran delako indartto hora bestetan emplega [ezazü.

Ene maitia barda nun zinen

1

Ene maitia, barda nun zinen
Nik bortañoa joitian,
Buruyan ere min nuyen eta
Dudarik gabe ohian.

2

Bard'arratsian, ametsetarik
Boz bat entzun dut charmantik,
Eztitasunez bethia beitzen,
Haren parerik ez beitzen.

3

Eztitasuna gauza ederra
Nork nezake ni kondena,
Gauaz loale egunaz ere
Errepausurik batere.

4

Charmagarria, lo ziradia,
Eztitasunez bethia ?
Lo bazirade iratzar zite,
Etziradia loz ase.

5

Arboletan den ederrena da
Oihan beltzian phagoa ;
Hitzak ederrak ditutzu bainan
Bertzetan duzu gogoa.

6

Nik zure ganik despegitzia
Iduritzen zaut hiltzia,
Hiltzen ez baniz bihurtuko niz
Indaitzut bi pot, maitia.

Eskualdun Choriak

1

Gu gira gu Eskualdunak
Gu eskualdun choriak !
Gazte, lorios, lerdenak
Guri zabal bidiak !

*Aufa, aufa, aufa mutilak,
Gora Eskualdun choriak !*

2

Choriak libertatia
Goraki du kantatzen.
Guk ere dugu guria
Bihotzetik aiphatzen.

3

Gure Eskualdun bandera,
Churi, pherde, gorria,
Hor dago airean gora :
Gora Eskual-Herria !

4

Chuberotik Lapurdira
Bachenabarren gaindi
Aira denek oihu bera :
Gora, gora Euskadi !

5

Atzar, atzar Eskualduna,
Egun lehen bezala
Orhoituz Jaun Goiko ona
Bethi gure dugula.

Eskualdun seme

Eskualdun seme dena bedi alegera.
Ikusi dut bet-betan, oi zein den ederra !
Ez ametsetan, nintzen atzarria,
Arbola bat harrokan, ederki jarria.

Zer haiz, bada, arbola ? Orai mintza hadi,
Harrokatik begira hagoena guri.
— « Ni nauk Eskualduna bai aspaldikoa,
Egundaiño haizkorak ezin hautsizkoa.

Huna orai non naizen, orai lehengoa !
Lorerik ez dut, bainan sendo dut erroa.
Ez naiz ihartuko, segur dut bizia
Ez ba'dautet azpian zilatzen mendia.

Eskualdunak, geroztik gaiten alegera !
Kanta berria dugun denek kanta gora :
Gora Eskualduna Gazteri'azkarra
Gora mendi gainean fededun arbola !
[Gora ! Gora !

Esperantzariik gabeko amodioa

Airea : « Muthil kochkor bat ».

1

Amodioa gauza tristea bihotzen higatzailea
Guziz enea bezela bada, esperantzariik gabea.
Gizonarentzat hau baino malhur haundiagorik badea?
Ikusten eta, ezin eskura, maitatzen duen lorea
Onela bizi baino cinitzez, hobe litaike hiltzea.

Oi Jainko ona zendako bada egin nauzu hoin maluros
 Begien bichtan izar eder bat ezarri dautazulakotz ?
 Ikus orduko, maite nuena, nik ditudan indar oroz.
 Horrek ordainez ez du enetzat ez begi ez eta bihotz
 Nehoiz ikusi izan ez banu, hobeko nuen ondikotz !

Oi ene maite ezin ukana, zoin ziren charmegarria
 Maite dut zure begitarrea maite zure boz eztia
 Halaber zure irri gozoa, zure izaite guzia
 Zuretzat baizik ez dut begirik, zare ene iguzkia
 Gau eta egun zuri pentsatzen, deramat ene bizia.

Martchoko hormak galduko duen lore pollit goichtiarra
 Ta eihartzerat bortchatua den aizeak hautsi abarra,
 Ene bihotza ez ditaika gauza horier konpara ?
 Nehoiz enea ez da izanen, maitatzen dutan izarra,
 Hartaz orhoituz, maiz ethortzen zaut nigarra begietara.

Aitorzen dauzut ene maitea, goiz aski banakiela
 Ezintaizkela enea izan, bertze batentzat zinela,
 Bainan hala-re maitatu zaitut, ez bainezaken bertzela.
 Ene bihotza bizi naizeno izanen zaizu fidela
 Zuretzat bizi ez banitaike, zuretzat hil nadieila.

CHALBADOR.

Euzko

Euzko !
 Euzkotarrak gira
 Eta maite dugu
 Aberria,
 Eskual-Herrria !
 Aufa mutillak,
 Maita dezagun Euzkadi
 Azkatasuna emanez guri.

Gazte gazte joan nintzan

1

Gazte gazte joan nintzan
Herritik kampora.
Estranjere aldean
Pasa det dembora.
Herri alde guzietan
Toki onak badira,
Bañan bihotzak dio
Zoaz Euskal herrira !

2

Agur, nere bihotzeko
Amacho maitea,
Laster etorriko naiz
Jaungoikoak nahi du
Kontsola zaitea.
Ni urez juatea ;
Ama zertarako da
Nigar egitea ?

3

Lur on hunen uztea
Da negargarria ;
Emen gelditzen dira
Ama ta herria.
Urez noa ikustera,
Bai, mundu berria ;
Orantche, bai, naizela
Urrikalgarria.

IPARRAGUIRRE.

Gitarra joilea

1
Gitarra tchartcho bat det nik nere laguna
Horrela ibiltzen da artist Eskualduna,
Egun batian pobre bestietan jauna !
Kantatzen pasatzen det nik bethi eguna.

2

Nahiz den Italia, orobat Frantzia,
Bietan billatu det mila malizia ;
Korritzen badet ere nik mundu guzia,
Maitaturen det bethi Eskualdun herria.

3

Jaunak emaiten badet neri osasuna,
Orañik izango det andregai bat ona ;
Nahi badet Frantsesa interesa duna,
Bainan nik naiago det hutsik Eskualduna.

4

Adio Eskual herria, bañan ez bethiko ;
Bospasei urthe huntan ez det ikhusiko !
Jaunari eskatzen diot grazia emaiteko
Lur maite gocho huntan bizia uzteko.

IPARRAGUIRRE.

Gizon gazteak

Gizon gazteak ezkontzeko behar ditu lau gauza
Lehen lehenik, iduria, alegera bihotza,
Dirua frango sakelan eta, bizi zeaz ez lotsa.

Horietarik hiru baditut, laugarrena dut falta
Bai iduria badut eta, alegera bihotza,
Dirurik ez dut, bainan ordainez, bizi zeaz ez lotsa.

Nik baditut hiru tatcha, baterekin aski bainuke
Arno edale, jokolari, lanean ez-ari nahi,
Hiru tatcha horien gatik, neskatsek maite naute ni.

Goizean goiz jeikirik

1

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,
Urera joan ninduzun, pegara harturik.
Tra lera, la la la...

2

Jaun chapeldun gazte bat jin zautan ondotik :
« Heia nahi nuenez urera lagunik ? »
Tra lera, la la la...

3

— Nik : « Ez nuela nahi urera lagunik,
Aita beha zagola salako leihotik. »
Tra lera, la la la...

4

Aita beha zagola, ezetz-erran gatik,
Pegarra joan zerautan, besotik harturik.
Tra lera, la la la...

5

Urera ginienian, ez ginен egartsu
Galdegin zautan ere : « Zombat urthe tutzu ? »
Tra lera, la la la...

6

— « Hamasei... Hamazazpi orain ez komplitu :
Zurekin ezkontzeko gazteegi nuzu. »
Tra lera, la la la...

7

Etcherat itzultzeko, nik dutan beldurra !
Ez jakin nola pentsa amari gezurra !
Tra lera, la la la...

8

— Arreba, nahi duzu nik erakuts zuri,
Etcherat ethortzean, zer erran amari ?...
Tra lera, la la la...

9

« Urcho churi pollit bat, gabaz dabilana,
Hark ura zikindurik, egotu naiz, ama ! »
Tra lera, la la la...

10

Dakigunaz geroztik zer erran amari,
Dugun pegarra pauza, gaitezen liberti !
Tra lera, la la la...

Goizian argi hastean

1

Goizian argi hastian, ene leihoh hegian
Chori bat pausatzen da eta goratik hasten
[kantan]
Chori ejerra, hain alagera, enzüten haitanian
Ene bihotzeko trichtüra laster doak aidian.

2

Ene choririk maitena, zertaz jin hiz nigana,
Iratzarazi naialarik ametsik eijerrena
Jinik hain goizik, uste hienet, nik baniala ha-
[nitch pena ?
Ez ez, habil kontsolatzera malerusago dena.

ETCHAHUN IRURIKOA.

Goizian goizik

1

Goizian goizik jeiki nunduzun
Espusa nintzan goizian.
Bai eta zetaz ere beztitu
Ekhia jelki zenian.
Etchek'andere zabal nunduzun
Eguerdi erditan.
Bai eta alhargun gazte
Ekhia sarthu zenian.

2

« Musde Irigarai, ene jaona,
Altcha izadazu buria !
Ala dolutu othe zaitzu
Eneki espusatzia ?
— Ez, ez etzitadazu dolutu
Zureki espusatzia,
Ez eta ere doluturen
Bizi naizeno, maitia.

3

Nik banizun maitetto bat
Mundu ororen ichilik,
Mundu ororen ichilik eta
Jinko Jaonari ageririk :
Buket bat igorri ditadazut
Lili arraroz eginik,
Lili arraroz eginik eta
Erdia phozuaturik.

Zazpi urthez etcheki dizut
 Gizona hilik khamberan ;
 Egunaz lur hotzian eta
 Gaiaz bi besuen artian,
 Zitru hurez ukhuzten nizun
 Astian egun batian,
 Astian egun batian eta
 Ostirale goizian.

Haika muthil

Haika muthil, jeiki hadi
 Argia den mira hadi.
 — Bai nagusia argia da
 Gure oilarra kanpoan da

Haika muthil, jeiki hadi
 Uria den mira hadi.
 — Bai nagusia uria da
 Gure erra bustia da

Haika muthil, jeiki hadi
 Surik baden mira hadi.
 — Bai nagusia sua bada
 Gure gatua beroa da.

Haika muthil, jeiki hadi
 Horchet zer den mira hadi.
 — Bai nagusia haizea da
 Gure leihoa ideki da.

Haika muthil, jeiki hadi
Kampoan zer den mira hadi.
— Bai nagusia elhurra da
Lurra churiz estalia da.

Haika muthil, jeiki hadi
Urean zer den mira hadi.
— Bai nagusia ardia da
Aspaldian ithoa da.

Haurrak ikas-azue

1

Haurrak ikas-azue eskuaraz mintzatzen
Ongi pilotan eta oneski dantzatzen
Airetun chikitun, airetun laire...

2

Gure kantu chaharrak konserba ditzagun ;
Aire pollitagorik ez da sortu nehun...

3

Ez ahantz behin ere sort-herri ederra,
Haren mendiak eta itsaso bazterra...

4

Bihotz leiala ere atchik aitameri
Eta nimbait goait dagon gazte maiteari....

Haurtcho ttipia

1

Haurtcho ttipia seaskan dago,
Zait iduri aingerua lo :
Ene maitia, ene pottolo
Eginaguzu lo !

Chakhur handia ethorriko da
 Zuk ez baduzu egiten lo :
 Horrena gatik, ene pottolo,
 Eginaguzu lo !

Ichil ichilik dago

Ichil ichilik dago, kaia bazterrian
 Untzi churi pollit bat uraren gainian.
 Goizek'ordu bietan ernatutzen gira
 Arrantzaliarekin joaitek'urrutira.
 Pasatzen nintzanian zure leihoa petik
 Nigar heldu zitzautan begi bietarik.
 Zer gatik (5 *aldiz*) nigar egin ?
 Zeruan izarra dago itsaso aldetik.
 Bat, bat, bat, bazter orduan ibili.
 Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili.
 Hiru, hiru, hiru, golkua bethe diru.
 Lau, lau, lau, chardin ta bakalau.
 Anteru tchamarrotia
 Tchingarren bigotia
 Aretchek derauka, derauka
 Preso tchiminoia.

Iduzki denean

Iduzki denean, zoin den eder itzala !
 Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala.
 Egiten duzula
 Mila disimula,
 Iñorant zirela ;
 Egiten duzula
 Bertzetaik naizela
 Falsuki mintzo zira.

2

Zazpi urthez bethi, jarreiki zait ondotik,
Erraiten zaundala, ez dut bertze maiterik ;

Hitzer fidaturik
Nago trompaturik
Gaichoa trichterik,
Ez dut eiten lorik,
Ez jan edan onik,
Maitia, zure gatik.

3

Oi ! ene maitia, nik ere zure gatik,
Pasatzen dizut nik, zombeit sabeleko min,
Ezkonduz zurekin
Samur ait'amekin,
Behar nindeite jin ;
Ez dakit zer egin,
Ez eta nola jin,
Ni neure etchekoekin.

4

Oi ! ene maitia, nun duz'izpiritua,
Fediaren jabe, aita deraukazuia ;
Atchikazu fedia
Maita berthutia
Libra kontzientzia,
Munduko bizia
Labur da maitia,
Ez zaitela kambia.

Ikhusten duzu

1

Ikhusten duzu goizean
Argia hasten denean
Menditto baten gainean
Etche ttipitto aintzin churi bat,
Lau haitz ondoren erdian,
Chakur churi bat athean
Ithurriño bat aldean ;
Han bizi naiz ni bakean.

2

Nahiz ez den gaztelua,
Maite dut nik sor-lekua,
Aiten aitek hautatua.
Etchetik kampo zait iduritzen
Nombeit naizela galdua ;
Nola han bainaiz sorthua,
Han utziko dut mundua,
Galtzen ez badut zentzua.

3

Etchean ditut nereak,
Akilo, haitzur, goldeak,
Uztarri eta hedeak ;
Jazko bihiez, ditut oraino
Zoko guziak betheak :
Nola iragan urtheak
Emaiten badu bertzeak,
Ez gaitu hilen goseak.

4

Landako hirur behiak,
Esnez hampatu ditiak,
Ahatche eta ergiak,
Bi idi handi kopeta zuri,

Bizkar beltz, adar handiak,
Zikiro bildots guriak,
Ahuntzak eta ardiak,
Nereak dire guziak.

5

Ez da munduan gizonik,
Erregerik ez printzerik,
Ni bezein urusa denik ;
Badut andrea, badut semea.
Badut alabe ere nik ;
Osasun ona batetik,
Ontasun aski bertzetik,
Zer behar dut gehiago nik ?

6

Goizean baniz lanean,
Arratsa heldu denean,
Nausia naiz mahainean ;
Giristino bat ona dut hartu
Nik emaztea hartzean,
Ez du mehe egunean
Sarthuko uste gabean
Chingar hezurrik eltzean.

7

Piarres ene semea,
Nahiz oraino gaztea,
Da muthiko bat ernea ;
Goizean goizik bazken erdira
Baderama arthaldea ;
Segituz ene bidea,
Nola baitu egitea,
Ez du galduko etchea.

8

Ene alaba Kattalin,
 Bere hameka urthekin,
 Ongi doha amarekin ;
 Begiak ditu amak bezala,
 Zeru zola bezin urdin ;
 Uste dut demborarekin,
 Oraiko itchurarekin,
 Andre on bat dion egin.

9

Ez dugu behar lurrean,
 Ongi bizirik etchean,
 Utzi laguna gosean ;
 Ez du beharrak sekulan jotzen
 Gure etcheko athean,
 Non ez duen mahainean,
 Otruntza ordu denean,
 Lekhu bat gure aldean.

10

Ene andrea Maria
 Ez da andre bat handia
 Bainan emazte garbia ;
 Irri batentzat badut etchean
 Nik behar dudan guzia :
 Gald'egiten dut grazia.
 Dudan bezala hasia,
 Akhabatzeko bizia.

ELISSAMBURU.

Inaki

Iñaki,
Jainkoak igorria
Lurrean izaitera
Jesusen
Gudarien
Burua !

Biltzarrak
Hartu zaitu
Begirale
Saindutzat !
Zu zira
Nausi lehen
Hoberena
Guretzat !

Iñaki,
Othoi entzun gaitzatzu
Eta beira gaitzatzatzu.

Bai denek
Eskualdunek
Hari gure
Bihotzak
Harena da
Herria.
Ibai-oihan
Mendi-gora !

Zerutikan,
Saindu-on,
Atchik bat
Zazpiak !

Atchik-azu
Jaun-goikoa
Eta lege
Lehengoa.
Etsaien garraitzeko,
Zuk mana
Eskualduna !

Guduan sarturik
Ezpata eskuan
Eskualdunen alde
Zeruko indarraz
Zuk begiraturik,

Eskual-Herria
Dohatsu izanen da,
Zuk, Iñaki,
Zaindua !

Inchauspeko alaba

1

Inchauspeko alaba dendaria,
Goizian gozik jostera joailia
Nigarretan pasatzen du bidia,
Aprendiza kontsolatzailia.

2

Zelian den izarrik ederrena
Jin balekit argi egitera,
Juan naiteke maitiaren ikhustera
Ene phenen hari erraitera.

3

Mundu huntan phenarik gabetarik
Bizitzeko nik eztut perilik ;
Maithatu dut ukhanen eztudana,
Horrek beiteit bihotzian phena.

4

Maithatu duzia ukhanen eztuzuña,
Horrek deizia bihotzian phena ?
Eta juanen da zure bihotz mina.
Maith'ezazu ukhan diokezuna

5

Mertchikaren floriaren ederra !
Barnian dizu hechurra gogorra ;
Gaztia niz, bai eta loriusa,
Eztitut galtzen zure esperantcha.

Iragan bestabiharamunian

1

Iragan bestabiharamunian,
Berek dakiten choko batian,
Lau andre hirur mutchurdin, bat alarguna, jar-
[riak itzalian,
Harri chabal bat belhaunen gainian
Ari ziren ari ziren trukian.

2

Zer othe duten nik jakin nahi
 Pitcharrarekin bertze jaun hori ;
 Zorroa du biribila, moko mehea, tente chutik
 [egoiki,
 Chahako bat othe den nago ni
 Hampatua, hampatua ederki.

3

Jes ! nik oraino zer dut ikhusten ?
 Zer hegalpean dute gordetzen ?
 Egoitza gocho hortarik, burua alto, chahakoaz
 [trufatzen,
 Bihotzez azkarrago zeren den,
 Kuiattoa, kuiattoa ari zen.

4

Handik chimiko, hemendik irri,
 Haurrak bezala jostetan ari ;
 Gogotik ematen dute begi kolpe bat hegal pean
 [denari ;
 Hitz bat erran gogo diote sarri
 Beharrirat, beharrirat kuiari.

5

Seira truk dira zazpietarik,
 Tantoz orobat bi aldetarik.
 Chahakoa eroria da, mokoz iphurdi, naski odol
 Kuiattoa han dago etzanik, [husturik ;

6

Gezurrik gabe goazen, Maria ;
 Eman jokoan ehti eztia ;
 Hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan tra-
 [go bat edo bia,
 Bihotza dinat epheltzen hasia.
 Harek zuen, harek zuen grazia.

Zahagiaren seme joria,

Nun duk ochtiko zorro lodia ?

Gaizoa, lehen birundan zurgatu dautek odola-
[ren erdia !

Orai hor ago zimurrik arpegia,
Kōkoriko, kokoriko jarria.

Nahiz zeraukan azken eskua,
Mariak zuen hasi gudua.

Truk. — Jo zan. — Mariak change, Katichak
[chaldun, Marichumek, hirua.

Mari-Martin, choratu zain burua,
Lauarekin hiruaren keinua !

Ago, Maria, othoi, ichilik,
Ez dun ikeri nere keinurik.

Chorta bat edanez geroz, begiak ñirñir ; zer ez
[dun ahalkerik?

Edan nezaken azkarren hortarik,
Gatilua, gatilua betherik.

Bazikinagu, tresna makurra,
Ezdunala hik hatsa laburra.

Ez dun, ez, dionan bezala, horma churgatz bi-
[ribildu muthurra,

Ez eta ere gorritu sudurra,
Milikatuz, milikatuz elhurra.

Apho mutchurdin moko biphila,
Zeren ondoan othe habila ?

Hatz badun gibel aldean, ikeriko dun zembat
[naizen abila ;

Chuhur badun, ago, neska chirtchila,
Ichil, ichil, ichil, ichil, ichila.

Kartak utzirik, eta tantoak,
Han zituzten han gero saltoak.

Bakharrik hiruen kontra, zer eginen du Mari-
[Martin gaizoak ?

Nahiz izan azkar zango besoak,
Hartu ditu, hartu ditu paloak.

Herriko besta arrats aphalian
Lau gatu zahar anjelusian,
Bat maingu, hirur saltoka, sorginak pues ! zo-
[hatzila bidian,
Nik ikhusi ditut amets batian,
Akhelarre, akhelarre gainian.

ELISSAMBURU.

Irugneko ferietan

Iruñeko ferietan iragan San Ferminetan,
Ehun zaldi arribatu Andaluziatik tropan ;
Merkhatu eder bat zauntan, zaudelarik bi lerro-

2 [tan

Bat zen pikarta-churia ; hartan bota dut begia
Andaluzak egin zautan bi untza urrhe galdia
Eskain orduko erdia, harzak, hire duk zaldia

Han nintzen arrapatua, aginduaz dolutua :
Urruntzeko izan banu hirur arditen lekhua,
Gizonez inguratua, iduri preso hartua.

Zeruko Jainko Jaun ona! Zerk ekharri nu ni
[huna?

Andaluz bat zazpi urthez presondegian egona ;
Laburzki mintzo zautana: konda niri hitzemana.

5

Jauna, nahi dut pagatu, bainan lehenik miratu.
Zaldiaren miratzeko demborarikan ez duzu.
Orai soma kondazazu, gero miratuko duzu.

6

Han ninzan plaza bethean, jende hainitzen ar-
[thean.

Gogoeta hau egin nuen orduko estremitatean :
Bertze nunbait pasa niro jaun hori puñal ba-
7 [tean.

Eman orduko khondua, eztitzen hasi mundua.
Garistutik hartu nuen delako behor mainkua
Emanik behar dirua, hustu bainuen lekhua.

8

Utzirik bide ederra, hartu dut oihan bazterra :
Zaldia nuen desferra, begi batetik okherra :
Usu soinatzen kitarra, eztularekin uzkerra.

9

Belategiko bentetan pasatu nintzan andetan ;
Ahal bezala arribatu Urdazubiko errekan,
Zaldia sarthu partetan, athera nuen khordetan.

10

Nunbaitik argi aldera arribatzen niz etchera.
Nere andrea ethorri zaut argiarekin athera.
Jarri behorrari beha, ez baitzen kontent sobera.

11

Horiche da behor tcharra, eta bertzalde charra,
Hortan gastatu dautazu familiako beharra ?
Bi sosetan sal nintzazke zaldia eta senharra.

12

ichilik zaude, Andrea ; joan ez dakidan zaldia!
Bele eta arranoak borthatik daude gardia.
Othoi hil-zazu argia, hunat ez diten abia.

13

Ichilik zaude zu ere, gezurrik khondatu gabe.
Bele eta arranorik borthan ez baita batere.
Eginak gira gu ere estofa on baten jabe.

14

Plazan zutenean ikhusi, nahi zautaten erosi
Tratuan bainitzen hasi, ez zuten emaiten aski.
Ez nuen eskutik utzi, ume bat behar du hazi.

15

Jinen den ume berria, behor edo zamaria
Eginen baitut guardia, denez ama iduria
Heldu bada handia, oi zer primako zaldia.

Joanes OXALDE.

Iruten ari nuzu

Iruten ari nuzu, khilua gerrian (berriz)
Ardura dudalarik, (ber.) nigarra begin (ber.)

Nigar egiten duzu, oi suspirarekin (ber.)
Kontsolaturen zira (ber.) oi, denborarekin (ber.)

Jendek erraiten dute hal'ez dena frango (ber.)
Eta partikulazki (ber.) zu'ta neretako. (ber.)

Ezkont'mina dudala zuk omen diozu (ber.)
Ez dut ez ezkont'minik (ber.) gezurra diozu (ber.)

Ezkont'mina dutenak seinale dirade (ber.)
Mathel-hezurrak seko (ber.) koloreak pherde (ber.)

Ezkontzen balinbazira marinelarekin. (ber.)
Janen duzu chardina (ber.) makailcuarekin (ber.)

Ezkontzen balinbazira mandozainarekin (ber.)
Janen duzu arraina (ber.) **oliuarekin.** (ber.)

Ofiziale seme, kolore gorriak (ber.)
Baigorriko neskatchen (ber.) **karesatzaileak** (ber.)

Nik ez dut karesarik bertzek ez dutenik (ber.)
Berak dabilz'ondotik (ber.), **zer eginen dutnik ?** (ber.)

Anaia, nahi duzuia'mazterik erosi ? (ber.)
Baratze kantoinetan (ber.) **sosean hemezortzi** (ber.)

Arreba, nahi duzuia gizonik erosi ? (ber.)
Eliza bazterretan (ber.) **bi sosetan zortzi** (ber.)

Itsasoa

1

Itsasoa lanho dago
Baionako barraraino :
Nik zu zaitut maiteago
Choriak bere umiak baino !

2

Aita gutaz orhoit dago
Lanhopean gaueraino !
Nik zu zaitut maiteago
Arraintchoek ura baino !

3

Afaria suan dago
Bero-beroa sarridino :
Nik zu zaitut maiteago
Egur onak sua baino !

4

Izar churiz mila dago
Iparretik hegoraino :
Nik zu zaitut maiteago
Ilargiak gaua baino.

5

— Lo egizu, egizu lo
Deskantsuan bihar artio :
Nik zu zaitut maiteago
Gau beltzean loa baino !

6

Orai haurra hor lo dago :
— Lo egizu, aingeruño !
Nik zu zaitut maiteago
Zure aitak nihaur baino.

Jaun kaputchin

1

Jaun kaputchinizar handi,
Jesusen ganat ethorri ;
Astoak jan zion bizarre,
Ustez eta zen belharra.

2

— Asto zikhin milatua,
Handia duk bekhatua :
Makhil huntarik jasta zak ;
Joanen dituk hire hatzak.

3

— Jaun Kaputchinizar gorri,
Barkha-zozu asto horri.
Garbi bazinu bizarre,
Ez lidurike belharra.

4

— San Josepe, barkhamendu !
Ez nuke behar sumindu :
Bainan oraiko laidoa
Izariz goiti badoa.

5

Jesusek othelakotik
Gauzak oro entzun ditik
Jaun Kaputchin belhauniko
Othoitzean hasten zako.

6

Erranikan Lauda Sion
Bizarra pusatu zion ;
Erranikan Tantum ergo,
Astoarentzat belhar frango,

7

Hola biek beren hura
Izan zuten muthurrera.
Ez baziren kontent hola
Freskatzerat joan ditela.

Jaz hil zitzaitan

1

Jaz hil zitzaitan senharra
Nik nahi nuen bezala !
Itsutu zen,
maingutu zen,
konkortu zen :
Zaharra zen, hil bedi !
Etzuen balio lau ziri !

Aurthen hartu dut senharra
Nik nahi nuen bezala !

Ez da itsu,
ez da lausu,
badu zentzu,
badu diru ;

Diru deno, bizi bedi ;
Gero hil dadila noiz nahi !

Jeiki, Jeiki !

Jeiki, jeiki, etchekoak, argia da zabala
[argia da zabala.
Itsasotik mintzatzen da zilharrezko adarra,
Bai eta ere ikharatzen Olandresen ibarra,
[Olandresen ibarra !

Jerolimo

Jerolimo, entzun zazu,
Neskatzarekin ibiltzen zera zu !
Ama datorrenian-nian,
Aita datorrenian-nian,
Etxetik kanpora bialduko zaitu. (ber.)

Kaiet acheria

1

Gure herrian bada bethi zerbeit sujet
Huna orai ere bat : erraiten dautzuiet :
Zelhaian hatcheman da, acheritzat Kaiet :
Bortha tcharrak dituzte hango oilateiek.

Tralala, tralala la ia...

2

Plazaren erditik zen acheria juana,
Aitzinetik harturik kaiolaren plana :
Abiatu bezala egin balu lana...
Etzen ttipituz juanen acherien fama...

3

Kaiolan sarthu eta fite bezain sarri :
Lephua bihurtzen dio oilo gaichoari...
Oiloa karrankaka oihuka zen ari :
Acheria bazela, nagusi jaunari...

4

Nagusia heldu da bere harmarekin :
« Acheriak behar dik ikhusi enekin »...
Kaiolaren ondorat hurbiltzearekin...
Acheria gorde zen : ez jakin zer egin.

5

Gorde lekhuan dute acheria hesten
Bainan laster zakote han nigarrez hasten
Othoi, othoi athea ideki dezoten :
Urdandean ez dela acheririk hazten....

6

« Ago ichtan bat, ago, acheri chirtchila ;
Ez haiz hik uste bezain gerthatu abila...
Iadanikan bahuen oiloño bat hil ;
Banoak berehala polizaren bilha !... »

Acheriak akordu diote galdu...
 Astean bortz libera nahi du pagatu
 Nagusiak abian eman arrapostu :
 « Nahiago diat nik hi preso altchatu!... »

Oren laurden bat gabe argi zen herria.
 Oren erdi bat gabe plazan zen berria :
 Acheriketa zela juan jandarmeria...
 Lekhua han zen... bainan falta acheria !...
 CHETRE.

Kaiku

Neure andrea andre ona da,
 Gobernu ona du hauzuan ;
 Hartzen duelarik bere alaba,
 Mari-Kattalin altzuan :

Ai zazu,
 Zer nah'zu ?

Gero're horrela munduan ere,
 Biak biziko gerare gu,
 Baldin bazera kontentu.
 Nik bethi freskotchorik tabernakua
 Sototchuan deraukat arno gozua.
 Ai ! zer kontentu ! ai ! zer alegre !
 Eskaintzen dautzut, neure maitia,
 Arroltzetchuak eta kaiku esnia.

*Kaiku (6 aldiz) esnia.
 Arroltzetchuak eta Kaiku esnia.*

Kantatzerat nohazu

Kantatzerat nohazu oi zer penarekin !

Zer modu pasatzen den gure amarekin :

Ezkontzerat ez utzi nahi gostukoarekin.

Ama ez naiz ezkonduren zuk esanarekin.

2

Tomas dantzari ederra, abila jokuan,

Kartak ibiltzen ditu nahi duen lekuau,

Ez dutala ezarriko etchetik kampoan,

Tomas chintchotukoren da ezkondu ondoan.

3

Berak baitzuen penetan egin eta hazi,

Amak nahi zuen alaba chit ondo ikusi,

Abil izan nahi duen haurra orai libro utzi.

Ez jin nigarrez ni ganat bihar edo etzi.

Kattalin ttukuttun

Kattalin ttukuttun Kattalin arina !

Zenbatna saltzen dugu dotzena chardiña ?

— Hamabortz sos dotzena, prezio chuchena

Erosten ez baduzu zeazi aintzina !

Kinkiriunkuru

1

Erran dut, erranen ef'errango,

Ez naiz ichilik egongo :

Plaza huntako dama gazteak

Ez dira monja sartuko.

*Ala kinkiri, ala kunkuru
Ala kinkiri kunkuru kanta !
Ala kinkiri kunkuru kanta
Gu bezalakoak dira, hola !*

2

*Erran dut, erranen et'errango,
Ez naiz ichilik egongo :
Plaza huntako gizon gazteak
Ez dira fraile sartuko...*

3

*Erran dut, erranen et'errango,
Ez naiz ichilik egongo :
Plaza huntako gazte guziak
Ezkontzan dira sartuko...*

Lapurdi eta Bachenabarre

*Lapurdi eta Bachenabarre,
Zibero eta Nabarra ;
Gipuzko herri eta Bizkaia
zazpi garrena Alaba !
Guziek elgar atchik dezagun
niholere ahal bada.
Aiten kostumak segi ditzagun
ukha ez dezagun Ama !*

2

*Eskual-herrian gaizki gabiltza
zorigaitzez aspaldian ;
Hantche kastillaz, hemen frantsesez
ari gira solasean ;
Denen ikhastia gizonak on du,
dabilalarik munduan ;
Bainan eskuara, ahantzi gabe,
beira dezagun buruan.*

MENDIAGUE.

Lili bat ikhusi dut

1

Lili bat ikhusi dut baratze batean
Desiratzen bainuke nere sahetsean ;
Lorea ez du galtzen, udan ez neguan,
Haren parerik ez da bertze bat munduan !

2

Deliberatu nuen gau batez joaitera
Lili arraro haren eskurat hartzera.
Ez bainuen pensatzen beiratzen zutela !...
Gau hartan uste nuen, han galtzen nintzela!

3

Etsemplu bat nahi duf eman guzieri,
Eta partikulazki jende gazteari :
Gauaz ibiltzen dena ez da zuhur ari ;
Ni begiraturen naiz, eskerrak Jaunari !

Lili eder bat

1

Lili eder bat badut nik
Aspaldi begistaturik ;
Bainan ez nainte mentura haren eskura hartze-
Banaki zer den lanjerra, [ra,
Juan nindaiteke aldera.

2

Lili ederra, so'idazu
Maite nauzunez errazu.
Zure begiak bihotza barnarik deraut kolpatu ;
Kolpe huntarik badizu
Granganatzeko hirrichku.

3

— Ez nuke nahi malurrik
 Balin bazindu ni gatik ;
 Ez dut uste ene begiak eman dautzuten kolpe-
 Ez duzu beraz lanjerrik, [rik ;
 Etzira hilen hortarik.

4

— Mintzo zirade poliki,
 Poliki eta tendreki.
 Bisitaño bat nahi nuke nik zure ganat laburzki !
 Desirra badut segurki
 Bazinezadat permeti.

5

— Permeti niro, maitia,
 Ez dut hain bihotz dorphia ;
 Bainan nahi nuke jakia zure desirra guzia :
 Zuhaur zirade simplia,
 Opinionez bethia.

6

— Badakit simple nizela ;
 Hori segurki hala da ;
 Iduritzan zaut bai zinez ezaguetan zirela :
 Orai nik badut fortuna ;
 Bainan ez dut zuk emana.

Lo hadi ainguria

1

Lo hadi ainguria amaren alzouan
 Hire erri ejerra botz ezpain chokhouan
 Acholbian gutuk bainan ni trichtura gogouan
 Aro gaitza duk kanpouan'ta aita itchasouan.

2

Beha zak aize beltza mehatchukaz ari
 Zer gaihaldi luzian zougnen etsigarri
 Harriturk ikharan niz lothu kurutchiari
 Othoitzez Jinkouari egin dezan argi.

3

Lo hadi lo maitia ez egin nigarrik
 Zeren nihaour aski nuk hemen dolugarri
 Egik zeluk'angurier erri batez batzarri
 Phentsa dezen aitari jin dakigun sarri.

ÉTCHAHUN IRURIKOA.

Lo lo nere maitea

1

Lo ! Lo ! nere maitea ;
 Lo ! ni naiz zurekin.
 Lo ! Lo ! paregabea,
 Nigarrik ez egin ;
 Goizegi da munduko
 Gelditzen bazira
 Nigarretan urtzeko
 Baduzu denbora.

2

Lo ! nik zaitut higitzen ;
 Lo ! lo ! nonbait goza.
 Ez duzu ezagutzen
 Amattoren boza ?
 Etsai guzietarik
 Zure begiratzen,
 Bertze lanak utzirik,
 Egonen naiz hemen.

3

Lo ! nere aingerua,
 Bainan ametsetan
 Dabilkazu burua,
 Hirriz ezpainenetan,
 Norekin othe zare ?
 Non othe zabiltza ?
 Ez urrun, ama gabe,
 Gan, ene bilhotza.

4

Lo ! lo ! zeruetarat
 Airatu bazare,
 Ez bihur zu lurrerat
 Ardietsi gabe
 Zu ongi altchatzeko
 Enetzat grazia :
 Guziz eni hortako
 Zait ehti bizia.

5

Lo ! lo ! gauak oraindik
 Nombait du eguna ;
 Ez da nihon argirik
 Baizik izarrena.
 Izarrez mintzatzean,
 Zutaz naiz orhoitzen :
 Zein guti, zur'aldean,
 Duten distiratzen !

6

Lo ! lo ! dembora dela
 Iduri zait albak
 Histen hari tuela
 Elki gabazkoak ;
 Choriak, arboletan,

Kantaz hasi dire ;
Laster nere besotan
Gozatuko zare.

7

Bainan atzarri zare,
Uso bat iduri ;
Huna nik zembat lore
Zuretzat ekharri
Ametsetan aitamez
Zareia orhoitu ?
Ai ! hirri maite batez
Baietz erradazu.

Dr LARRALDE.

Lurraren pean

1

Lurraren pean sar nindaiteke,
maitea, zure ahalgez ;
Bortz phentsamendu eginik nago
zurekin egon beharrez :
Bortha barnetik zerratu eta
gamberan bethi nigarrez...
Phentsamenduak airean eta
Bihotzetikan dolerez !
Ene changrinez hilarazteko
Sorthua zinen arabez.

2

Oren onean sorthua zira
 Izar ororen izarra,
 Zure parerik ez zait agertzen
 Ene begien bichtara,
 Espos laguntzat nahi zintudan
 Erran neraitzun bezala :
 Ordean zuri ez iduritzen
 Zuretzat aski nintzala,
 Ni baino lagun hobe batekin
 Jainkoak gertha zaitzala.

3

Mariñelak joaiten dire
 Itsasorat untziko.
 Zuretzat dudan amodioa
 Ez dut sekulan utziko.
 Charmegarria nahiz ez giren
 Elgarrekilan biziko.
 Behin maithatu zaitut eta
 Ez zaitut hastiatuko :
 Ene gogoan sarthua zira
 Eternitate guziko.

4

Primaderan zoinen den eder
 Choria khantuz kampoan.
 Amodioak bainerabila,
 Maitea, zure ondoan :
 Charmegarria, ez zaitut nahi
 Bortchatu amodioan.
 Ni changrin huntan hilikan ere
 Satisfa zaite gogoan :
 Bai maluruski aski banuzu
 Bakharrik nihaur munduan.

Maitia nun zira

1

Maitia, nun zira ?
Nik etzutut ikhusten.
Ez berririk jakiten,
Nurat galdu zira ?
Ala khambiatu da zure deseña ?
Hitzeman zenereitan,
Ez behin, bai berritan,
Enia zinela.

2

Ohikua nuzu ;
Enuzu khambiatu.
Bihotzian beinin hartu,
Eta zu maithatu,
Aita jeloskor batek dizu causatu :
Zure ikhustetik,
Gehiago mintzatzetik
Hark nizu pribatu.

3

Aita jeloskorra !
Zuk alaba igorri,
Araiz ene ihesi,
Komentu hartara !
Ar'eta ez ahal da sarthuren serora:
Fede bedera dugu,
Alkarri eman tugu,
Gauza segurra da.

Zamariz iganik,
 Jin zaizkit ikhustera,
 Ene kontsolatzera,
 Aitaren ichilik ;
 Hogei eta laur urthe baditit
 Urthe baten burian [betherik :
 Nik eztiket ordian
 Aitaren acholik.

Alaba diener
 Erranen dit orori :
 So'gidaziet eni,
 Beha en'erraner ;
 Gaztetto direlarik untsa diziplina :
 Handitu direnian
 Berant date ordian,
 Nik badakit untsa.

Makhila

Begistatua nuen aspaldi mendian
 Mizpir'ondo chuchen bat sasien erdian.
 Handitzerat utzi dut eta harrekila
 Aurthen egin dut nere eskualdun makhila.

Bi erroden gainean joaiten ez ikasi,
 Burdin bidetan, aldiz, sabela nahasi.
 Bainan nun dut karrosa? nun dut beribila?
 Oinez bethi banoa... eskuan makhila.

Kana delako batzu hirian baituzte ;
 Hoitarik gehienak deus guti, ni uste,
 Eztut hoik bezain herbail nîk nere kabilia,
 Eskuan dudalarik... eskualdun makhila.

4

Askotan ikusi tut ibilki herrian
Aitzindari erneak ezpata gerrian.
Bekaiztia ni ganik urrun joan dadila
Zer en eta baitut nik.... eskualdun makhila.

5

Igandetan goiz-goiza, chamarra emanik,
Etcheko andreari agur bat erranik,
Entzun eta oihuka dorreko ezkila,
Ni banoa harturik... eskualdun makhila.

6

Nere sakelak nahiz ontsa o miatu,
Jin zait behin gizon bat... Bainan zer gertatu?
Segurki eztu erran bater'ez nakila
Ibiltzen eskuetan... eskualdun makhila.

7

Jaunak atchik nezala luzezki munduan
Bai eta ezar gero betikotz zeruan.
Orduan, haur maiteak, otoi ! nerekila
Emazue hobian... eskualdun makhila.

8

Gero zeruetako mendi ederretan
Eta hedoietako izar churietan,
Jainkoaren alkitik han urbil-urbila,
Ibiliko naiz lerden... eskuan makhila.

9

Begistatua nuen aspaldi mendian
Mizpir ondo chuchen bat sasien erdian.
Handitzerat utzi dut eta harrekila
Hemen egin dut nere... zeruko makhila.

ITHURRALDE.

Maritchu

Maritchu norat zoaz, eder galant hori ?
— Iturrira, Barttolo, nai badezu etorri.
— Iturrian zer dago ? — Ardotcho churia,
Biek edango degu nai degun guzia
Maritchu norat zoaz, eder galant hori ?
— Iturrira, Barttolo, nai badezu etorri — Brau !
— Maritchu norat zoaz, eder galant hori,
Utzirik debalderat Eskualdun Herria.
Brau, brau, brau, rapataplau !...
Oi zer omoria !
Utzirik debalderat Eskualdun Herria.

Martin Koche

1

Hainitz othoiztu zuken amattok Jainkoa
Mundurat emaiteko ni bezalakoa
Moltsa arin dut bainan aberats gogoa
Deusek ez daut nahasi oraindino loa.

2

Nafartarra naiz eta deitzen Martin-Koche,
Arno gozoa maite omen dut sobrache
Debru frantsesek naute trufatzen holache
«Il était Martin-Koche, gai, gai, gai dimanché».

3

Irruritan sortua, maiatzian naski,
Hortakotzat jendiak jujatzen nau gaizki.
Janizak dautanean egiten asiki
Asetzeko ez ditut hamar talo aski.

4

Mendiko ur chirripak indarrak baditu.
Behar delarik ongi hertzea garbitu
Nik ez dut mirikurik erraiten aditu :
« Eri haiz, Martin-Koche, behar duk purgatu. »

5

Nahiz eztitzen duen urak egarria
Zainen phizteko nausi duk arno gorria,
Oi sendagailu gozo. Noek egorria,
Hik dautak bihotzetik kentzen elhorria !

6

Martin-Kochek ez ditu eskolak kurritu,
Hala-ere badaki zer den apetitu.
Hunen filosofiak hiru pundu ditu :
Ongi jan, ongi edan, aseta gelditu.

7

Ene othoitz bakarra baita « Pater noster »
Ohetikan lekora errana dut laster.
Zonbat aldiz mandotik ez naiz ni erortzer,
Hezurrak oso dauzkat « Pater »-ari esker.

8

Urtheak badoatzi on-tzarrak nahaste,
Eta gu heiekilan zahar eta gazte.
Jaunak ez baitaut erran « nahuk berriz haste »,
Nago prest eta presta berak deitu arte.

9

Zorrietako menta dudan errementa,
Dena den hiretako huna testamenta :
Pipa, tocha, zahako, mando eta manta,
Zorrentzat igorriko zerutik errenta.

BECAS.

Mehetegiko chakurra

1

Mehetegiko chakhurra
Zangoz, errainez makhurra,
Berga bat luze muthurra,
Larrutik hurbil hezurra,
Urthe guzia barura,
Zeren den toki chuhurra.

2

Amak ttikitik utzia,
Esnerik gabe hazia,
Tripa errainer josia,
Uliek jaten hasia ;
Churikok bere bizia
Hola derama guzia.

3

Mahainpetik kokoriko,
Begira dago Churiko
Artho achaltto bat noizko
Othe zaion eroriko.
Nausiak ematen daizko
Doan hortik bi ostiko !

4

Chakhur gaichoa holakoz
Merke ase zutelakotz,
Tripa hutsik, ilhun gogoz,
Pleinuz zagon egun oroz ;
Hatzka zangoz eta besoz
Nihun ez zauken kukusoz.

5

Ohoinkak ere noiz-nahi
 Horren sainga ilhaunari
 Gabaz ziren irriz ari :
 « Chakhur prestua, hi haiz, hi ! »
 Gero ichiltzea sari,
 Jo harrika gaichoari.

6

Egun batez baratzera
 Huiatzen dute lanera,
 Doan oilo haizatzera...
 Chakhur gose-ta-minbera,
 Buztana tripaz behera,
 Ihes doa gordetzera.

7

Martin etcheko muthila,
 Zalu harturik makhila,
 Haren ondotik dabila,
 Churiko chakhur habila
 Lastoan ichil ichila
 Dago alegia hila.

8

Zenbeit egun gau bakharrez
 Gorde egonik herabez,
 Athera zen jan beharrez,
 Hamikatua, nigarrez,
 Estalia zaragarrez
 Lakhastaz eta zakharrez.

9

Sukaldean nihor ez da ;
 Sartzen da chakhur herresta.
 Errekia zen prest presta,
 Zeren zen herriko besta.
 Usain, milik'eta jasta,
 Dena jaten du has eta.

10

Etcheko andre khechua
 Hor heldu da hats-hantua :
 « Zakhur madarikatua,
 « Eia, hor usu usu,
 « Nik hauts artean burua,
 « Egik hire ordenua. »

11

Ordenuak hau du beltza,
 Denen uztea bertzentzat ;
 Churikok badaki ontsa
 Nori zer utz, nola phentsa ;
 Etchekandreari gantza ;
 Nausiari azken putza.

12

Bizian gosez egonik,
 Hiltzean sobera janik,
 Huna Churikok erranik
 Zer entzun dugun azkenik :
 « Gose dagonaren ganik
 « Ez daitekela lan onik ».

ZALDUBY.

Mendekoste phestetan

1

Mendekoste phestetan,

Aurthen Arneik errekan,

Ichtorio bat gerthatu da kasik ezpeitiot erran :
Bost emaztek edan dituzte hamalaur pint' arno
Jokhaturik kartetan ! [betan]

2

Jokua zuten florian

Arneiko Madrilenian ;

Atso gajchoek uste zuten zirela zeruko lorian,
Saindu ororen erdian, bere botoilak aldian,
Bai eta plazer handian.

3

Batek zion bertziari :

« Haurra, hire graziari ;

Arnoño hunek alegrantzen ditan bihotzñua niri,
Ene plazerra hola luken banu zombeit ogi po-
Arno ehti huneki. » [chi]

4

Katrina eta Kattalin,

Auzo biak elgarrekin,

Arno edaten ari ziren kuraia handi batekin ;
Gero ondoan bazuten gibel aldian zer egin,
Bere fanfarreriekin.

5

Hirugarrenak ederki

Tanteatzen omen daki ;

Hamarrekuak harek zituen omen markatzen
[orori,
Ondarrekotz nahasi zen eta lurrerat erori ;
Orduan etzen egarri.

Laugarren hori zer pheza,
 Maria zapatainesa ;
 Untsa esplikatzen zituen eskuara eta frantsesa,
 Bai eta ere aisa egiten bide handian esa ;
 Horiche da haren letra.

Bostgarren hori zoin othe da ?
 Pentsatzeko ez da phena ;
 Garachane gaizo horrek nola ezpaituke lehena ;
 « Benedika dakiola, dio, mahatsari aihena
 Arno ekartzen duena ! »

Ahuntzez jokatu eta
 Hasi ziren kolpeka ;
 Gaston deitzen zen guarda bat, kampotik
 [jinik lasterka,
 Hak partitu izan zituen, ez uste bezain aisa.
 Arrazoinik ezin pasa.

Zuk ere, Etchek'anderia,
 Erran beharzu egia ;
 Solas hortan zu othe zinen horien buruzagia ?
 Bost emaztek egiteko horiche da komedia !
 Hurran baitzen zahagia !

Mendian zoin den eder

Mendian zoin den eder epher zango gorri !
 Ez da behar fidatu itchur'eder horri.
 Ene maiteak ere bertzeak iduri :
 Niri hitzeman eta gibelaz itzuli.

2

Gaztena, ontu-eta, lurrean ihaurri :
Ene bihotza duzu zu ganat erori,
Eta zurea aldiz harria iduri,
Enè begi gaichoak nigarrez ithurri.

3

Airea zahar khantorea berri :
Ene maite pollita zira charmagarri,
Kolore churi-gorri arrosa iduri,
Mundurat jina zira ene ihargarri.

4

Heldu naiz zure ganat arrosa ederra
Ezin bertze huntarik nezazun athera.
Changrin huntan hiltzeko jin balait malura,
Begian bazinuke bethiko nigarra.

Mendi gainean

1

Mendi-gainean elhurra dago
errek'aldian izotza ;
Zu ganik libratu bainaiz,
alegera dut bihotza.

2

Uda-hastean iguzkitara
urtzen denean elhurra,
Zuk ere sendiko duzu
urrikiaren uztarra !

3

Ithurri ona ttipi ditake,
ez da sekulan agortzen :
Bihotzak ez du, hartu-ta,
amodiorik ukatzen.

Mundian malerousik

1

Mundian malerousik hanitch bagirade,
Bena ni bezain denik ezta ihour ere.
Nihauen funtsetan nahiz izan jabe
Hamar ourtheren galerak enetzat dirade.

2

Desertuko ihiziak, jenten beldurrez,
Abisatzen dirade egoitera gordez.
Ni ere, hourak bezala, gachoua nigarrez
Ene bizi trichtia kountserbi beharrez.

3

Hogei eta bi ourthik bethe egunin
Emazte bat hartu ninene zorigaitzin :
Erraiten ahalbeitut zereki zeitan jin,
Ene urkha bilhurra gorderik altzopin.

4

Ezagutu nianin zer nian erosi,
Nahi ukhen nian bortchaz kounbertirazi.
Haren jabe handik haren althe jarri
Eta ni, ogen gabia, gaztelin ezarri.

.....

5

Zu ere, Juztizia, injusto zirade :
Ogendant zaitzu tchipik, handik ogen gabe ;
Zoure jujamentik halache dirade :
Dihariarentako kountzentzia saltzale.

6

Egizie, gaztik, ene zorthiri so :
Gei dinak ezkountu, ez jar esklabo !
Emaztia ez har enia bezalako :
Aphezt-zite lehen, edo joun soldado.

7.

Hanitch mintzatu niz ene etsaien keuntre,
Nahiz eztudan erran gezurrik hal'ere.
Duda-gabe estakurik baditit nik ere,
Ezpeitu Jinkouk egin gaberik batere.

8

Adio, ene haurrak, gacho ogen gabik,
Aitak eta amak esklabi ezarik :
Eztitzatzie jarraik aitamen etsenplik,
Bena zuhaien buruz ahalaz Jesus-Krist.

9

Barkocheko lurrian ez tcherkha Etchahoun
Haren atzaman nahiz dabiltzanak ondoun ;
Bere khantoren egiten ari da Igeloun
Halako olhalterik ezpeita Ziberoun !

ETCHAHOUN BARKOCHEKOA.

Nere mandoa

Nik erosi dut mando zahar zahar bat,
Pagatu baitut asto bat eta joar'zar bat...
Nere mandoa !

Abere gaichto dirurikan askorikan gos-
[tarik pagaturikakoa.

Nere mandoa !

Nere mandoak jaten dizi garagar,
Hura jan-eta egiten baitu far-far-far....

Nere mandoa !

Abere gaichto, etc...

Getharian kargatu nuen arrañez :
Nere arrañer nehor ezin hurrant urriñez...

Nere mandoa !

Abere gaichto, etc...

Neure dotea

1

Aitak eman daut dotea
Neurea neurea !
Urdeño bat bere umekin
Oila kolcka bere chitoekin
Tipula korda heiekin.

2

Otsoak jan daut urdea
Neurea, neurea.
Acheriak oilo koloka
Garratoinak tipula-korda
Adios neure dotea !

Nevadarat joan nintzan

1

Nevadarat joan nintzan
Dirurikan gabe,
Hantik itzultzekotan, maitia
Bortz miliunen jabe.
Ai, ai, ai, ai, ai....

ERREPIKA

*Ai, ai, ai, ai, ai !
Ametsaren lana !
Ait'amen erranetarik barna
Ibili bagina !*

2

Urtheak joan ziren
On ta tzar nahaste,
Gure fortuna heiekin eta
Denak berritz haste ! .

3

Begia zorrotz eta
Memoria argi,
Ez den ez den tokian, maitea
Aztaparra garbi.

4

Moltsa arin dut, bainan,
Aberats gogua !
Nere fortuna zare maitia
Nere sosegua !

Oihan beltzian

Oihan beltzian zouinen eijer den osio berdia jalkhitzen!
Han entzun dutut egun goizian tchoriak kantuz erraiten
Bi bihotz gazte amodioak egun dutiala juntatzen.
Boztariotan sarthu niz eta orai hasten niz khantatzen.

2

Espous espouser, ororen phartez, ouhoure eta goraintzi.
Egun duzien amodioa bizi zideno ez utzi :
Nahigabetan pharte har eta plazerrak ez berantetsi
Irous izate ederrenian nahi dugu ziten blzi.

3

Espous jaunari elhe bat bera burian dezan eduki :
Lagunto horri amodioaz bethi bihotza eraiki ;
Zaharragoer ouhoure eta haien abiser jarraiki,
Familiako bake houn baten gozatzeko algarreki.

4

Espousa gazte baten erhiun zouin eijer den erhaustuna,
Harek heitio mouthil gaztier : « Etziteiela ingana ;
Senhar houn baten edireiteko egun izan dut fortuna,
Hari emanik bihotza oso bai eta gaztetarzuna. »

5

Tchori ejerrak egiten dizu elhorritzian habia :
Espous espousek gazte laguner eman deie etsenplia,
Berantu gabe ber urhatsari oro ditian abia,
Baratzen denak uduri beitu lanthare uzta gabia.

Adios zier espous espousak, uzten zutiet bakian ;
 Zeluko Jaunak lagunt zitzela hartu duzien bidian.
 Igarailiak ikhous zitzela ourthe zounbaiten burian
 Amatto haur bat altzoan eta aita laueki lanian.

LIGUEIX

Oihanian

1

Oihanian zouin den eijer
 Tchoriño bat kantari
 Eskualdun arbolari
 Zazpi probintzier.
 Amodioz diot gazter
 Eskuarari bethi esker
 Jarraiki aiten urhatser
 Ez sekulan bazter.
 Ezteia charmagarri
 Nouri eztu plazer
 Tchori bat kantan ari
 Eskualdun aurhider.

2

Oi, tchoria ! hanitchetan
 Zourekilan batian
 Bozkarioz kantatzia
 Nian desiretan.
 Sartu gira plazeretan
 Egun plaza eder hountan
 Nahiz bozkario ezarri
 Eskual bihotzetan.
 Hots anaie maitiak,
 Bandera eskietan,
 Eskualdunak beikira
 Nausi guzietan.

Etchahun Irurikoa.

Oilarra Kukuruka

1

Oilarra kukuruka etchean da ari,
Jadanikan Amacho othoitzez Jaunari ;
Bi eskuak ikharan, so kurutzeari ;
Jaunak beha diezon egun berriari !

2

Atcho zinez pollita da gure Amatto,
Chahar izana gatik ez oraino ttonto.
Diruz balimbad'ere pochi bat pobretto,
Omor'onez bederen dago aberastto.

3

Igandetan ederrik, iduri pampina,
Zinez erran liteke : « Horra Erregina ! »
Begia irriz dago, halaber ezpaina :
Oi zer atcho pollita, Jainkoak egina !

4

Baru sahetsetikan motto-buztanduna,
Lephō-gibel aldean mokanes urdina,
Balenarik gabeko soineko fin fina,
Zaiaño bat pollita ber'eskuz egina.

5

Meza-deia burrumban, eliza-dorretik,
Eta amacho johan landa bazterretik ;
Buruaren zaintzeko iguzki gaichtotik,
Kaputchina pleguan eman du burutik.

6

Artho-bizardun pherde, sorhopil gizenak,
Sagar hori'ta gorri, mahasti-aihenak,
Amacho gaichoari irriz daude denak :
Ezagun da direla adichkide minak !

7

Intzaur, piko, gaztenak, zirezte handitu,
 Zuen landatzailea da aldiz chahartu ;
 Ainitz neguetako elhurra gelditu,
 Eta ile urdinak zeraizko churitu.

8

Huna ur-chirripa bat intzirez doana,
 Gain hartako zerua bezambat urdina :
 Lehenago jauzian igaiten zuena...
 Orai, doi-doi, emanez harri chabalduna.

9

Bidean orok hari bihotzez agurra.
 « Agur, Amatto, agur ! — Agur, ene haur-
 [ra ! »

Amacho erreposki ez dadien lerra,
 Ttapa, ttapa badoa chandrari behera.

10

Herrirat heldu eta, zaia du zafratzen,
 Zapeteri erhautsa eskuaz chahutzen ;
 Kaputchina burutik laster. beheititzen,
 Eta ichil ichila elizan da sartzen.

11

Zer othoitzak orduan Aita Jainkoari !
 Aingeruak barrandan chahar maiteari.
 Bertze guziak kantuz errepikan ari...
 Atcho ona mezuka Ama-Birjinari.

12

Hilen herri chokoan, mezatik lekora ;
 Amatto nigarretan othoitzez hobira ;
 Loretto bat harturik lurretik eskura,
 Ichil eta trichte da itzulten herrira.

Ilhun zeinuetako etcherat heltzean,
 Gozo handi bat zuen Amak, bihotzean,
 Gaztena adar beltchek, hora aditzean
 « Gau on ! » zioten orok, betan aphaltzean.

Oi Amacho maitea, agian luzachko,
 Jainko Jaun onak zaitu gurekin utziko !
 Luzaz, agian luzaz gaituzu zainduko !
 Ainitz urthez, agian, zaitu ahantziko !

Jean BARBIER.

Ollanda gazte

Ollanda gazte moko fier bat
 gure herrian badugu :
 Hegal-petik lumaño bat
 Falta ez balinbalu,
 Munduan aski ez lizateke
 ollanda hartaz espantu...

Orhiko choria

Orhiko choria Orhin bakean da bizitzen,
 Bere larre sasietan ez da hora unhatzen ;
 Han zen sorthu, han handitu, han ari zen mai-
 [tatzen,
 Han bere umen artean, gozoki du kantatzen.

Urusa harek bezala egiten dakiena !
 Orhin sorthu eta Orhin gazte zahartzen dena !
 Aditzez baizen ez daki zer den kampoko ona,
 Bainan aldiz jastatzen du etcheko zoriona.

3

Bego etcheko chokoa oraino nor-berari !
Bego ait'amen etchola haurrik hazienari !
Etchea bethi etchea da, zembat den itsusgarri,
Kampoa bethi kampoa da, zembat den eder-
4 [garri !

Etchean pena guziak dirade kontsolatzen ;
Etchean zauri minenak noratbait ere hesten,
Irriak, solas gozoak, non dirade han baizen,
Gau-aldera familia denean bateratzen ?

5

Familiako bizia, zein zaren plazertsua !
Zutaz gabetua dena zertaz da gabetua ?
Ume zurtza baten pare dabila herratua,
Ezin bere bihotzaren aurkhituz sosegua.

6

Zembat urrikari dudan bizi dena kampoan
Bera da beretzateko mundu haintan osoan ;
Jendez da sethiatua eta da desertuan !
Laguntza onik ez duke bere behar-orduan.

7

Etcheko tcharra hobe da ezenetz atze ona ;
Atzeak ez du balio etchekorik tcharrena :
Hori da alde orotan kurri doan errana,
Bainan ongi aditzeko frogatu behar dena.

8

Nik segurik zinez dakit nolako den kampaia :
Itchura hainitz du eta funts hainitz tcharrekoa.
Etzaitela hari fida, leguna du mintzoa,
Bainan gero sartzen dautzu ezten phozoatua.

9

Beraz gutarik bakhotcha etchean egon dadin,
Orhin sorthu balimbada, egon dadiela Orhin !
Zertako hainbertze urhats zorionketa egin ?
Etchean du zoriona nork berak berarekin !

Ostiraletan duzu

Ostiraletan duzu Garruzen merkhatu :
Ene maite pollita han nuen khausitu ;
Potbät galde'gin neron chapela eskian,
Biga eman zautadan, nigarra begian.

Gero galde'egin neron : « Nigarrez zer duzu ?
« Hola changrinatzeko sujetik ez duzu. »
Arrapostu'man zautan : « Zuhaurrek dakizu ;
« Ene nigar ororen sujetə zira zu. »

Otchalde eta Etchahun

1

Agur, adichkidia, Jinkoak egun hun ;
Zer berri den errazu, zuk, othoi Chuberun ?
Ezagutzen duzia Barkhochen Etchahun ?
Holako koblaririk ez omen da nihun...
Bisitaz joan nindaite, ez balitz hain urrun.

2

Jauna, ezagutzen dit Etchahun Barkochen :
Egun oroz nitzaiko hullanik ebiltzen.
Bethi gazt'ezin egon, ari da zahartzen.
Lau hogoi urthe ditu mundin igaraiten ;
Orai ez da bertsetez hanitch okupatzen.

3

Jauna, behar datazu gauza bat onhetsi,
Bainan ez zautzu behar hargatik ahantzi ;
Huntaz egiten dautzut gomendiorik aski
Komprenituren duzu hitz laburrez naski :
Errozu ene phartez milaka goraintzi.

Zure komisionia nahi ditzit egin,
 Kombenitzen zidazut hanitch plazerekin.
 Egon nahia zira arren jaun harekin ?
 Huna Etchahun bera, present da zurekin...
 Nik ere ez diota zu nor ziren jakin ?

Jakin ere behar duzu, dudarikan gabe,
 Zeren egin dautazun errespetuz galde.
 Entzutia baduzu nitaz lehen ere ;
 Nor nizan erraitia ez ditzit herabe :
 Lapurdin deitzen nute Jean Baticht Otchalde.

Bihotzaren erditik egiten dit irri,
 Zure ganik entzunik parabola hori.
 Damutzen ez bazaiko zeluko Jaunari,
 Behar ditzigu eman zumbeit berset berri,
 Bai eta ber demboran eskiak elgarri.

Amodioz derautzut eskia hedatzen,
 Zembaat atsegin dutan ez duzu phentsatzen.
 Gizon batzuek nute ainitz atakatzen,
 Ez dutala ikasi phertsuen emaiten...
 Zuk laguntzen banauzu ez nute lotsatzen.

Etchahun Ziberuan, Otchalde Lapurdin
 Buruzagi dirade kantoren egitin.
 Ez gitutzu gu beldur, nor nahi jin dadin ;
 Erranen dit orotan gure Uskal-Herrin :
 Jokaturen dugula hek plazer dutenin.

Ez zaitela bada sar sober'urgulian
 Etsaminatu gabe zur'izpiritian.
 Irakurtu izan dut, lehen, liburian :
 Jaunen jaunak direla agertzen mundian,

Lehen zaharretarik nik entzun dut hori :
 Bethi badela norbeit denen buruzagi....
 Arren, nahi badira guré kontra hari,
 Unheski kantatzeko zombeit berset berri,

Lotsa gabe gituzu denen zerbitzari.
 Huntan akabatzen dut erranez : « Halabiz !
 Ez dolu-minik hartu erraiten dut berriz :
 Hiltzeari nigarrez, sortzeari irriz ;
 Hola joanik badugu hemen martir ainitz

Egunaren pare da gizonen bizia :
 « Goizian azkartasuna, zer inozentzia !
 Eguerdian da aldiz indar garhaitia :
 Arratsaldian berritz flakatzen hasia ;
 Ilhuna zerratzian akabo guzia !!! »

Partitzeko tenoria

Mila zortzi ehun'ta berroi hemeretzi :
 Kantore berri batzu nahi tut ezarri,
 Penetan direnentzat oi, kontsolagarri !
 Gauzak har ez ditzaten sobera barnegi.

Kantu hauk eman ditut neure buruari,
 Zeren bihotzian dut hainitz sofrikari :
 Gorte eginik nago izar eder bati,
 Eta ni malurusa zortian erori !

Partitzeko tenoria huna non den jina,
 Urrikaltzeko baita kasu huntan dena ;
 Izar baten uzteak emaiten daut pena,
 Zeren hora bainuen munduan maitena.

« Izar charmegarria, oi penetan gira,
 Pena doloriak oro gure gainean dira ;
 Zure hitzetan fidel egoiten bazira
 Jainkoaren graziak gu ganako dira. »

Graziak hausten dira, oi demborarekin,
 Eta partikulazki, zure'ta nerekin,
 Ezkontzekotzat beraz biak elgarrekin,
 Armadetako berri behar dugu jakin...

Pipa hartuta

Pipa hartu'ta choratzen naiz,
 Arno edanta mochkortzen naiz,
 Mochkortu eta erortzen naiz,
 Nola demontre biziko naiz ?

Hamar botoila chankraturik,
 Azken basoa klikaturik,
 Azken chirrichta iretsirik,
 Moltsa deraukat tturrindurik....

Urrundu zaizkit aichkideak ;
 Eta hurbildu ostalerak ;
 Etchean aldiz emazteak
 Prest-presta ditu erasiak.

Bazter guziak ingurika,
 Bideak ere inharroska :
 Munduak zer du ? Hau da hinka !!
 Goazen etcherat andarkoka...

Muthiko gazte ta leiala,
 Konseilu onak har zaitzula ;
 Othoi bizian ez zaitela
 Sekulan mochkor ni bezala...

Plaño niz bihotzetik

1

Plaño niz bihotzetik
 Gaitza zer dudan eztakit,
 Tristezia batek harturik ;
 Enuke acholarik
 Baliz erremediorik
 Ene gaitza sendo ahal lironik ;
 Ez da mundian barberik, bat baizik
 Ene gaitza zertarik den ezagutzen dianik
 Eta houra berantetsirik
 Baniagozu, gachoua, tristerik !

2

Berantetsi nunduzun
 Segur beldurra banizun ;
 Bena ene khointak behar tuzu entzun :
 Zuk ouste gabetarik
 Zutzaz ohart nunduzun ;
 Zoure mina pharte eneki zuzun ;
 Zoure ganat jiteko heraberik enizun ;
 Bena beste manerarik arte hortan bazuzun ;
 Aspaldian goure etchian
 Khasu horrez aharra guntuzun.

Jin bazira, jin zira,
 Segur hounki jin zirela !
 Erraiten deizut berantetsi zuntudala ;
 Noun egon zira hola
 Horrenbeste denboraz
 Jin gabetarik ene ikhoustera ?
 Eztuzula acholik balikezu zounbait marka,
 Orai artino etzirenian jin ene kontsolatzera !
 Jin zite ardura ardura
 Phenaerazi gabe ni hola.

Prima eijerra

Prima eijerra,
 Zutan fidaturik,
 Hanitch bagira
 Oro trompaturik !
 Enia zirenez erradazu bai al' ez ;
 Bestela
 Banoa
 Desertiala, nigarrez hurtzera.

Desertiala,
 Juan nahi bazira,
 Arren zuaza,
 Oi, bena berhala !
 Ezitiala jin berritan nigana
 Bestela
 Gogua
 Doluturen zaitzu, amoros gaichua.

3

Nitan etsemplu
 Nahi dianak hartu,
 Ene malurrak
 Parerik ez baitu.
 Charmagarri bat nik bainian maitatu.
 Fidatu
 Trompatu !...
 Sekula jagoiti ikhusi ezpanu !

4

Mintzo zirade
 Arrazu gabetarik
 Eztudala nik
 Zur'amodiorik ;
 Zu beno lehenik banian besterik :
 Maiterik
 Fidelik
 Hor eztereitzut egiten ogenik.

Salbatore

1

Salbatore gora da Garazi aldian ;
 Ni ere han nunduzun igaran astian,
 Debozione gabe bai sentoralian,
 Ene gazte lagunak han beitziradian.

2

Bortietan artzain'ta ez jaisten ardirik,
 Outsa jan, edan, eta egin lo zabalik,
 Mundian ez ahal da ni bezañ irousik,
 Ez nuke segur nahi bizitze hoberik !

3

Izar bat jeikiten da Goizerri aldeti,
 Erien sendotzeko photeriareki ;
 Argi eder batetan, leñhuru bateki,
 Hounki-jin egin diot nik hari segurki.

4

Izar houra jiten da bozkariorekin,
 Zelialak emanen naiala bereki ;
 Hitzaman diriozut nik hari saminki,
 Haren zerbutcharia nizatela bethi.

5

Amorio zaharra, behar hait kitatu,
 Hanitch phena dereitak hik eni kausatu ;
 Maite berri bat zitak ezpirituan sarthu,
 Hari behar deroat bihotza libratu. »

6

— « Amorio zaharrak zutia jenatzen,
 Berri baten jitiak hanitch agradatzen ?
 Zu ere gaztettorik hasia maithatzen,
 Hoberik duzunian orai ni kitatzen !

7

Zoumbat aldiz nigarrez egin dut uthurri,
 Zu zinadiala kausa amak eraginik !
 Arrazou're ziala sobera badakit,
 Zeren zutzaz benintzan charmaturik bethi.

8

Kitatzeko sujeta zer othe ahal den
 Ahal bezain barnati niagozu phentsatzen
 Ene buria deusetzaz eztit akusatzen...
 Inozent nuzu eta zu joan zite arren ! »

Santi batek andere

(Egun hartako eskaleak, etche aintzinerat,
beren gerrenekin heldu direlarik.)

1

Santibatek, andere,
Aurthen bezala, gerore,

Santibatek **igortzen gaitu chingarketa** gu ere.

2

Ez gabiltza ederrez,

Kostuma zaharraren uztez erreprotcha beldur-
Ez eta ere beharrez,

3

[rez.]

Tolos'eta Baiona...

Jainkoak dautz'egun ona !

Guri chingarraren emaitera, jeiki bazinte huna!

4

Ez dugu nahi urdia,

Ez et'ere erdia,

Usaia gatik, kostuma gatik, liberako zathia,
Liberako zathia eta gerrenaren bethia.

5

Ez dugu nahi tripotik,

Bertzian izan ez denik,

Beldurrez eta trompa gitzazten... urdekeriaz
[betherik.]

(Etchek'anderiari lausenguak)

6

Etchian eder gerrena....

Etchek'andere lerdena,

Zur'erhiko erhaztun hortaz eros niro Baiona !

Etchian eder kortzeiru,
Dabiltzanian inguru....

Etche huntako etchek'anderia, Parabisuan ain-
8 [geru !

Etchian eder ohako,
Haurra sortzen deneko...

Etche huntako etchek'anderia zaldiz elizarako,
Zaldiz elizarako, eta zilhar kadiran jarriko !

Landan eder ilharra,
Haren pean belharra...

Etche huntako etchekanderia, zer emazte chi-
10 [lharra !

Etchian eder ferreta,
Haren gainean kaneta...

Etche huntako etchek'anderia, zer emazte pla-
[chenta.

(*Nausiari, erdi lausengu, erdi mehatchu*)

Etchian eder aitzurra...
Nausi bilo izurra.

Kolputto bat eman ezaguzu busti dezagun zin-
12 [tzurra !

Kadiran zaude jarririk,
Koloriak gorririk ;

Guri chingarren emaitera jeiki bazinte hortik !
(*Eskerrenbihurtzea*)

Eman duzu nobleki,
Kompainiak ere badaki ;

Parabisuan sar zaitezela, hamabi aingeruekin,
Hamabi aingeruekin eta zure familiarekin !

(*Deus ukaiten ez dutelarik*)

14

Goazen, goazen hemendik,
Hemen ez duk chingarrik ;
Etche huntako gazitei charrian sagiak umiak,

15 [hazten tik !

Etchian eder aihotza...
Etchek'andere hortz motza,
Su burdinaz hauts ditzatzula sudur eta kokotza!

Saratarra

1

Saratara naizela
orok badakite, orok badakite.
Semperen badudala
choriño bat maite.
Hura bezen pullitik, hura bezen pullitik
bertze bat balaite...
Bainan zer probetchu da,
nik hura dut maite.

2

Guziek badakite
naizela Piarres, naizela Piarres,
Choriño bat galdurik
nagola nigarrez ;
Bera ibili baitzaut bera ibili baitzaut
ondotik beharrez ;
Ederki ase bainau
Kafe'ta likurez !

Segi segi

Segi, segi gure bizi moldeari
Ez egin kasurik atsoen erraneri.
Santa se, santa se, santa sekulan ez dut ikhusi
Kukusorik kantatzen,
Eta chimitcha, eta chimitcha, eta chimitcha gi-
[tarra joiten,
Zorria irriz ithotzen...
Pesta egunean lanik ez, astelehenean gogorik
[ez,
Hoiek *guziak ikhusi eta, halere bizi ezinik ez.
Segi

Sor lekua

1

Sor lekhua utziz geroz
Ondikotz hala beharrez !
Jainko ona urrikaldu
Da bethi nere nigarrez :
Primaderan hasi orduko
Arbolak estaltzen lorez,
Choritto bat heldu zaut bethi
Nere herritik hegalez.

2

Nere ganat hain urrundik
 Ethortzean, unhatua,
 Arbolarik hurbilena
 Du bere pausa lekua.
 Aldachka goren gorenean,
 Horra nun den lokhartua :
 Luma pean zango bat eda
 Hegal pean du burua.

3

Pausa hadi, lo egizak,
 Chori maitea, bakean
 Atzarria ni hire zain
 Hemen nauk hire aldean,
 Ur chortarekin horra gero
 Papurrak leihon gainean ;
 Bainan gero hango berriez
 Orhoit hadi atzartzean !

4

Orhoit hadi bai, choria,
 Herri maiteko berriez :
 Nere aitzaz, nere amaz,
 Nigarrez han nik utziez,
 Mintza hakit aurhidez eta
 Mintza lagun on hekiez,
 Mintza nihor ahantzi gabe,
 Maite nintuen guziaz.

5

Atzar hadi, atzar bada,
 Berriketari abila,
 Nere beldur izan gabe
 Jin hakit urbil urbila ;
 Ene leihuau izan hizanez
 Erradak ichil ichila,
 Izan ere hunatekoan,
 Solas ordainaren bilha.

6

Choria, lo hagolarik
 Ikharan nagok aldean :
 Ez ahal duk zori gaitza
 Maite nautenen artean !
 Hala baliz, othoi choria,
 Berriz herrirat heltzean
 Loretto bat nigar batekin
 Pausazak tomba gainean.

7

Chorittoa joan denean
 Ostoak eror-demboran,
 Berriz ethor ez dadien
 Beldurrez nago ikharan :
 Ihiztaria, hartzen baduk
 Nere choria saretan,
 Utzak, othoi, gaichoa libro
 Berriak ekhar ditzadan !

ELISSAMBURU.

Sotoko ophorra

1

Aitak eman zerautan zerurat juaitean
Enezat mahastia artzeko lanean ;
Aitak bezala
Artha nezala,
Aitzur eta jorra,
Laguntzat hor nuela... *sotoko ophorra.*

2

Etche churi ttipi bat, badut mahastian,
Sagar, udare, phiko, mertchiken artean,
Etch'aitzinean,
Loren erdian,
Baratze alhorra,
Dutchuluaren pean... *sotoko ophorra.*

3

Mahastian choriek goiz dute kantatzen ;
Orduan bozkarioz lanari naiz lotzen ;
Gero zait hasten
Bihotza hozten,
Agortzen zintzurra,
Laster dut eskuratzen... *sotoko ophorra.*

4

Ez dut hiritar gisan gosari ttikia :
Bichkotchatto batekin edari bichia :
Nik dut ogia
Achal gorria,
Bai gasna gogorra,
Eta arno churitik... *sotoko ophorra.*

Neguan ez da deusik eder mahastian.
Aldachketan molkoak agertu artian,
Ikhuisiz huntan,
Osto artean
Larritzen pikorra,
Nola ahantz dezaket... *sotoko ophorra.*

6

Gero lagun onekin plazetan jostatzen
Igandetan debotki meza dut entzuten
« Zer muthil gotorra !
Nitaz erraiten :
Han dut aditzen
Ez ahal dik hastio... *sotoko ophorra.*

7

Gorphutza baitut sano, arpegia gorri
Hortako dute nitaz zerbait erran nahi,
Bainan ez naiz ni
Nihoiz ibili
Oraino mochkorra,
Izanagatik maite.... *sotoko ophorra.*

8

Badut moltsa luze bat urhez hampatua,
Hal'ere ezkontzeko lotsaz gelditua,
Beldur bainitzen
Gerta zadien
Andrea mokorra,
Eta hauts ostikoka... *sotoko ophorra.*

9

Ene gazte lagunak ezkondu direnak,
Haurrez betheak dire orai gehienak ;
Balute ere
Bertze hainbertze,
Ez naiz jeloskorra,
Haur hainitz bezain on dut... *sotoko ophor-*
[ra.]

10

Herriko zahar batzuk, sotorat ethorriz,
Han idukitzen naute lehertua irriz.

Konkorrek kanta,
Mainguek dantza,
Oihuka elkorra...

Biba ! zaharrak eta... *sotoko ophorra.*

11

Burlaka hasten baita artzaina menditik,
Zaharrek errepostu mahasti gainetik :

To edantzak hik
Chirripakotik
Gibel aldez gora,

Guk husteko demboran... *sotoko ophorra.*

12

Ophor hori ez baitzen andrentzat egina,
Hekier dut eskaintzen gathelutto bana ;

Hastio naute
Erraiten dute :
Donado zingorra !

Chehaturen ahal zaik... *sotoko ophorra.*

13

Bertsu hauk egitean iphar-gochoa zen
Sotoan hari nintzen arnoen aldatzen ;

Donado hemen
Zein ongi naizen,
Egin dut aithorra,

Tente chutik aldean... *sotoko ophorra.*

P. DIBARRART.

Tchomin

Tchomin ! jo zak trompeta !
Patchi ! nun duk konketa ?
Edaririk ez balinbada,
Ekarrak betherik... jaja !
Chakur ttiki gorriño bat
Faltatu zait niri,
Hartaz baliatzen dena
Ongi bizi bedi !
Klaskitin, klaskitin,
Arrosa ta krabelin !
Hartaz baliatzen dena
Ongi bizi bedi !

Ttiki-ttikitik

1

Ttiki-ttikitik aitak ta amak fraide ninduten
[asmatu ;
Bai eta ere Salamankarat ichtudiante bidaldu :
Salamankarat nindoalarik gogoan nuen pasatu
Ichtudiante tunante baino hobe nuela ezkondu.

2

Ostatu chume pollit batean gosez gelditu bai-
[nintzen,
Nechka charmant bat ari zitzaitan mahainean
[zerbitzatzen.
Begia kartsu, ezpaina lore, enekin aise mintza-
[tzen,
Aingeru hori ordu berean ene bihotzian sartu
[zen.

Hitz erdi batez maite nuela erran nion beharrira;
 Bainan gaichoa, herabetua, ihesi joan zen kan-
 [pora.

— Ez ahal nuzu, izar ederra, kondenatzen ifer-
 [nura !
 Ez da sekulan ene gogotik histuko zure itchura.

Jainko maiteak eman banindu bere zeruan gil-
 [tzari,
 Nik banakike behar-orduan nori athea ideki :
 Lehenik aitari, gero amari, gero anai-arreberi,
 Eta azkenian segeretuan ene maite pollit hari !

Tupintegiko Rochali

Tupintegiko Rochali
 Tantilulilu-tiluli
 Tupintegiko Rochali
 Paristik zaiku itzuli
 Dena fazoin
 Dena takoin
 Arrunt kaskoin....
 Tupintegiko Rochali
 Paristik zaiku itzuli.
 I-i-i-i.

2

Andere handi iduri
 Tantiruriru-tiruri
 Andere handi itzuli
 Ez dio « Bonchour » deneri
 Ezpain gorri
 Ile hori
 Begi zuri...
 Andere handi iduri
 Ez dio « Bonchour » deneri
 I-i-i-i.

3

Karrikan chut-chut ibilki
 Tantikukiku-tikuki
 Karrikan chut-chut ibilki
 Ai, espantuka badaki
 Ai, espantuka badaki
 Luche luche
 Mehe mehe
 Ai tetele
 Karrikan chut-chut ibilki
 Ai, espantuka badaki.
 I-i-i-i.

4

Hari eskuara ez aski
 Tantikukiku-tikuki
 Hari eskuara ez aski
 Bainan frantsesa balaki.
 Kiskun kaskun
 J'en suis Gaskun
 Pas Eskualdun
 Hari Eskuara ez aski,
 Bainan frantsesa balaki !
 I-i-i-i.

Parisko lili Rochali
 Tantilulilu, tituli
 Parisko lili Rochali
 Bai, frantchiment bai t'es cholí...
 Utzan moda,
 Utzan tinta,
 Ai potreta...
 Parisko iili tituli
 Hago eskualdun, Rochali !

Ume eder bat

1

Ume eder bat ikhusi nuben
 Donostiako kalean,
 Itz erdichko bat ari esan gabe
 Nola pasatu parean ?
 Gorphutza zuan liraña eta
 Oñak zeebiltzan airean...
 Politagorik ez det ikusi
 Nere begien aurrean.

2

Aingeru zuri paregabea,
 Euskal-herriko alaba,
 Usterik gabe zuganat bethi
 Nere bihotzak narama :
 Ikusi nayan bethi or nabil !
 Nere maitea, au lana !
 Zoraturikan emen naukazu
 Bethi pensatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute :
 Aingeru ori nun dago ?
 Nere maitea nola deitzen dan
 Ez du iñorchok jakingo.
 Ez berak ere ezluke naiko
 Konfiantza orretan nago :
 Amorio dun bihotz oberik
 Euskal-herrian ez dago.

Urrundik ikhusten dut

Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia,
 Beraren gibelean baitut nik herria ;
 Jadanik dut aditzen, zorion handia !
 Ezkila maitearen hasperen eztia.

Ezkila, zer othe duk hik egun erraten ?
 Urrunera zer berri othe duk igortzen ?
 Mendiek hedoipetik dautek ihardesten,
 Hik errana zerura ditek helarazten.

Landako langilea, artzain mendikoa,
 Ithurriko bidean dohan neskatoa,
 Aditurik, ezkila, hire boz lañoa,
 Othoizten hasi dituk Ama zerukoia.

Nik ere dut othoizten Birjina Maria,
 Basherrieta galdu haurren gidaria ;
 Neretzat othoi dezan ardiets grazia
 Bakean kausitzeko nik egun Herria.

Urtcho churia

1

Urtzo churia, errazu, norat joaiten ziren zu.
Espainiako mendiak oro elhurrez bethiak ditu-
Gaurko zure ostatu gure etchean baduzu. [tzu,

2

Ez nu izitzen elhurrak ez-eta ere gau ilhunak,
Maitea gatik pasa nintzazke gauak eta egunak:
Gauak eta egunak, desertu eta oihanak.

Zantzikitin

Zantzikitin, zantzikitin ibiltzen dire
Elorrioko kalean.

Ama-alabak trompeta jotzen
Zazpi astoren gainean.

Saltzen, saltzen chakur ttiki baten karameloa.

« Esta muy bien, esaten du konfiteroan,
Cuando vamos à Otchandiano
Tomaremos chocolate
Sombrero kupa altian. »

Zantzirikitin

ERREPIKA

*Zantzirikitin tintamore, gure omoria...
Utzi aldebat, nere maitia, Eskualdun jendia*

1

Ni gazte nintzenian denbora batian,
Bakerik ez nuen, maitia, ezkondu artian.

2

Egotu nintzenian apaiz jaunarekin,
Kikiri salda ginuen eta oligoarekin.

3

Ezkondu eta gero, hilabete gabe
Kikiri salda ginuen eta oligorik gabe.

4

Gazte laguna zuri nere kontseilua :
Bihotza sutan badezu ere beira hotz burua.

Zü zira zü

1

Zü zira, zü, ekhiaren paria,
Liliaren floria,
Eta mirail ezinago garbia !
Ikhusirik zure begitartia,
Elizateke posible, maitia,
Düdan pasentzia,
Hanbat zirade lorifikagarria !

2

Oi Krüdela, eriarazi naizü,
 Usüerazi naizü,
 Ulhünpien eradükiten naizu !
 Argituren dela erraiten düzü !
 Denbora da aitzina juaiten,
 Sekül'ez argitzen.
 Udüritizen zait naizüla abandunatzen !

3

Sartüz geroz behin bihotzian barna,
 Zerek dereizü pena,
 Charmagarri ezinago zirena ?
 Zük diozu nik düdala ogena :
 Detzagün beraz gaizak kontsidera :
 Nik badüt ogena,
 Eginen duzü nitzaz nahi düzüna !

4

Oi maitea, trufatzen zira naski :
 Udüritizen tzait klarki
 Amodio ez düzüla eneki :
 — Amodio ükeitia ez da aski ;
 Behar tützu bestiak oro utzi
 Bai enī jarraiki,
 Amodio perfet bat nik diket zureki !

GAINERATEKOAK

Alageraz

1

Alageraz nik eztut khantatzen,
Bena bai sofritzen,
Bai eta komunikatzen ;
Noulaz dudan khantatzen
Etsaia espantatzen
Alagera gabe.

2

Gai ainhera, habilou'etcherat
Utz nezak lotarat
Gaiaren igaraitera !
Hire plazer handia
Lukek iratzartzia
Lo dagouen ihizia.

Arotz abil bat...

1

Arotz abil bat bada, plazan, Bardoztarra :
Ihizin ibiltzeko zakhur bat beharra...
Adinez ez delarik oraino zaharra,
Erbi baten hiltzeko da partikularra !...
Tralalala la la.

2

Mintzatu izan dute jaun ihiztaria :
 Jan nahia zutela harek hil erbia...
 Ase ditu eginik saltsa bat handia :
 Auzotik ebatsirik gathu bat eria...

3

Toki ederrean da Zikite-Karrika...
 Ihiztariak ere han bere fabrika.
 Gathua han zabilan noizean-behinka :
 Borthan harrapatu du, mailu ukhaldika....

4

Hil eta ezarri du dilindan krakotik,
 Odola zariola beharri zilhotik...
 Bai-eta're larrutu borthak zerraturik...
 Nehun ez da holako gathu surregorik !!...

5

Bazen frantses, espagnol, italianoa
 Azken hunek baitzen tiratu burua
 Erranez kurritua zuela mundua :
 Saltsan hatcheman gabe holako gostua....

6

Gathuaren phizua hameka libera
 Laurden bat gehiago untsa phizatzena...
 Sei lagunek jateko bazuten sobera...
 Getharioa dena emanik barnera....

CHETRE

Arragnak eijer begia

1

Arragnak eijer begia, ô! neskatila faltsia (*ber.*)
Tchorigno batek erran zeitadan biga-bostetan
Biga-bostetan egia, zu etzinela enia (*ber.*) [egia,

2

Erbia doa lasterrez ihizlarien beldurrez (*ber.*)
Herri hountako neska gaztiak hourturik daoude
[nigarrez
Hourtourik daoude nigarrez, ezkount ez diten
[beldurrez (*ber.*)

3

Goiti eta beheiti banabilazu ni bethi (*ber.*)
Libertitzen ere nuzu ene gazte laguneki,
Ene gazte laguneki, nahichagorik zoureki (*ber.*)

Bein batian Loyolan

Bein batian Loyolan erromeria zan,
Antxet ikusi nuben neskatxa bat plazan ;
Txoria baño ere ariñago dantzan,
Uratxe bai pollita, an pollistik bazan !

Esan nion desio senti nuben gisan,
Arekin izketa bat nai nubela izan ;
Errantzun zidan ezik atsegin ar nezan,
Adituko zidala zer nai nion esan.

Arkitu giñanian iñor gabe jiran,
Koloriak gorritu-arazi zizkidan
Kontatuko dizutet guztia segidan
Zer esan nion eta nola erantzun zidan.

Dama pollita zera pollita guztiz ! ai !
Bañan alare zaude oraindik ézkon-gai ;
Ezkon gaitezen biok ! esan zadazu bai !
— Ni zurekin ezkondu ? ni zurekin ? Ja jai !

Beti penetan

Beti penetan, beti penetan { *berriz*
Bizi naiz mundu hunetan {
Egunaz zerbait alegratzen naiz, gauaz beti pe-
[netan,
Neure ganako amodioa joan zitzaitzun batetan.

Gudariena

Eskual gudariak gira,
Euzkadi azkatzeko
Hemen daukagu odola
Harentzat emaiteko....

Irrintzin bat entzun da,
Mendi tontorrian,
Goazen gudari denak
Ikurriñen atzian.

Mutil koxkor bat

1

Mutil koxkor bat itsu gidari zuela aldamenian
Gizon burusoilizar zuri bat bi makilaren gainian
Kalle ezkignan ikusi nuen nihora ezin joanian
Ta bera nor zen jakin nahian hurbildu nintzaionian
Limosnatxo bat eskatu zidan Jaun Goikoaren ize-
nian (berriz)

9

Zerbaite emanez galdezu nion nere molde onenian
Sortzetatikan hala zen ala, gaitzak hartua mendian
Erantzun zidan : Ez semia ez, nik sasoia nuenian
Ez nuen uste erotzerikan hein huntarat azkenian
Gaur limosna bat eskatutzen det Jaun Goikoaren ize-
[nian (berriz)

3

Eta segitu zuen erranez : « Len gerla ginuenian
Haur bat bezala ibiltzen nintzan beti, edo gehienian.
Nekatu gabe aise, iganez aldapa luzienian
Etzen bururat hainitz etortzen hola ginabiltzanian
Gero limosna eskatutzerik Jaun Goikoaren izenian. (ber.)

4

Odola bero eta burua harrosko dagoenian
Edozoin moduz sartutzen gira holako itsu-menian ;
Atsegabe ta nigar saminak badatz oñorenian
Baldin ta ere gure bizia utzitzen ez dugunian
Limosnatxo bat eskatu behar Jaun Goikoaren ize-
nian (berri

OTANO).

Montebideoko gizon zahar baten arrengurak

1

Nere herritik izan ditudan paper batzuek diote
Mundu hunetan badiitudala hiru hogoi zortzi urthe.
Denbora batez adin huntarat heltzerik ez nuen uste.
Pazientzia hartu behar dut, beti ez naiteke gazte.

2

Gazte denbora pasatu izan dut bertze hainitzek bezala
Ilusionez dena betia, uste berizerik etzela.
Zango besoak zalhu ta azkar, bero bainuen odola
Orai ardura etchean nago jarririk umil umila.

3

Besoak ere gogortu zaizkit, zangoz ardura herrestan.
Denbora batez aise egiten kantu ta dantza plazetan
Oraino ere egin nezake, indarrik banu zainetan.
Geldi ta ichil egon behar naiz, zaharturikan penetan.

4

Soinua nun zen aditu eta, loriatu dautzika
Harat joaiteko bethi prest nintzen laneko tresnak utz
Orai jauziak oro utzirik ardura bidian mainguka [eta
Ald'orotarik mil'arrangura, hau da oraiko musika.

5

Halarik ere iduritzen zaut gazte ta azkar naizela.
Oi zer gizona, ahalan banu ideia dudan bezala.
Bainan nihaurek ezagutzen dut odola hoztu zautala
Erroak ontsa eihartuz geroz, lurrerat doha arbola.

6

Mundu hau zer den ezagutzeko urhatsa frango eginik
Penitentzia nerekin daukat bekhatuaren ondotik
Orduko nere erhokeriak etzaizkit jociten burutik
Jainkoak ideia zertako utzi, indarra kenduz geroztik.

Ez nuke nahi, bainan behar niz orai bederen zentzatu
 Lehenagoko ene furiak adinak daizkit garhaitu;
 Sortzean egin zorra badakit behar dudala pagatu
 Bainan halere bizi naizeno bethi eginen dut kantu.

Fite mundutik joanen naizela gaztek naute abisatzen.
 Ust'othe dute nihaurez hori ez dudala ezagutzen?
 Arrapostua eman nezake berek kasu ein dezaten
 Ni baino ainhitz gazteagorik ikusi ditut partitzen.

Hau da lege bat gure Jainkoak guziendako emana
 Mundu huntalat sorthuz geroztik konplitu behar duguna
 Huntarik ez da nehor salbatzen izana gatik fortuna.
 Lurrean utzi behar baitugu lurretik izan duguna.

Lurra dugula denek nagusi sinhets dezagun ordu da
 Lurrak emaiten tuen fruituak lurrean gelditzen dira
 Lurra da gure azken egoitza, lurrean bizi baigira
 Goiz edo berant, nahi ala ez, lurrean sartuko gira.

Batek bertzeari emaiten badu zahar hunen hil herria
 Bazterretikan adituko da zuzen den arrapostua.
 Guk egin behar dugun bezala egin dik bere aldia
 Munduaz ontsa probetchatu dik, etzuian orai sortua.

Ni hil ondoan neretzat ez da nihun mezarki emanen
 Hortaz segur naiz ez dela nehor pagatzailerik izanen.
 Adichkidiak, hau galdatzen dut, ez baita hainitz gosta-

[tzen]
 Bihotzes denek kanta zazue : Rekiezkat in paze. Amén.

José MENDIAGUE.

ZER NON

1	Adios ene maitia	2
2	Adios izar ederra	2
3	Agour Ziberoua	3
4	Agur Jaunak	4
5	Ai ai ai mutila !	5
6	Ai hori begi ederra	5
7	Ai zer plazerra	5
8	Aldapeko sagarraren	7
9	Ama	7
10	Ama begira zazu	9
11	Amodioa	10
12	Andereño bat	11
13	Andre Madalen	11
14	Ara nun diran	12
15	Argia dela diozu	13
16	Argizagiak zelütik	14
17	Argizari ederra	15
18	Arno onaren gozoa	15
19	Baserritarrak	16
20	Bazterretik bazterrera	16
21	Begiak farrez	17
22	Berreterretchen kantoria	18
23	Bidarraitarra	20
24	Bizi naiz munduan	21
25	Boga boga	22
26	Boneta eta tchapela	23
27	Bortian Ahuzki	24
28	Brodatzen ari nintzen	25
29	Buba ñiñaño	27
30	Bulun bat	27


31	Charmegarria	27
32	Cho cho Mariaño	28
33	Chori errechiñole tak	29
34	Chori errechiñola	30
35	Choriñoak kaiolan	31
36	Chorittoua nouat houa	31
37	Dama gazte	32
38	Donostiako hiru damatcho	33
39	Eguntto batez	34
40	Ene maitia barda nun zinen	35
41	Eskualdun choriatik	36
42	Eskualdun seme	37
43	Esperantzarik oabeko amodioa	37
44	Euzko	38
45	Gazte gazte joan nintzan	39
46	<i>Gernikako arbola</i>	1
47	Gitarra tchartcho bat	40
48	Gizon gazteak	40
49	Goizean goiz jeikirik	41
50	Goizian argi hastian	42
51	Goizian goizik	43
52	Haika mutil	44
53	Haurrak ikas zazue	45
54	Haurtcho ttipia	45
55	Ichil ichilik dago	46
56	Iduzki denean	46
57	Ikusten duzu goizean	48
58	Iñaki	51
59	Inchauspeko alaba	52
60	Iragan besta biaramunian	53
61	Iruñeko ferietan	56
62	Iruten ari nuzu	58
63	Itsasoa	59

64	Jaun kabutchin	60
65	Jaz hil zitzaitan	61
66	Jeiki jeiki	62
67	Jerolimo	62
68	Kaiet acheria	63
69	Kaiku	64
70	Kalla kantuz	16
71	Kantatzerat nohazu	65
72	Kattalin ttukuttun	65
73	Kinkiri kunkuru	65
74	Lapurdi eta Bachenabarre	66
75	Lili bat ikusi dut	67
76	Lili eder bat	67
77	Lo hadi ainguria	68
78	Lo lo nere maitea	69
79	Lurraren pean	71
80	Maitia nun zira	73
81	Makhila	74
82	Maritchu	76
83	Martin Koche	76
84	Mehetegiko chakurra	78
85	Mendekoste pestetan	81
86	Mendian zoin den eder	82
87	Mendi gainean	83
88	Mundian malerusik	84
89	Nere mandoa	85
90	Neure dotea	86
91	Nevadarat joan nintzan	86
92	Oihan beltzian	87
93	Oihanian	88
94	Oilarra kukuruka	89
95	Ollanda gazte	91
96	Orhiko choria	91

97	Ostiraletan duzu	93
98	Otchalde eta Etchahun	93
99	Partitzeko tenoria	95
100	Pipa hartu-ta	96
101	PlaÑu niz bihotzetik	97
102	Prima ejerra	98
103	Salbatore	99
104	Santibatek andere	101
105	Saratarra	103
106	Segi segi	104
107	Sor lekua	104
108	Sotoko ophorra	107
109	Tchomin	110
110	Ttiki ttikitik	110
111	Tupintegiko Rochali	111
112	Ume eder bat	113
113	Urrundik	114
114	Urtcho churia	115
115	Zantzikitin	115
116	Zantzirrikitin	116
117	Zü zira zü	116

Gaineratekoak

118	Alageraz	118
119	Arotz abil bat	118
120	Arragnak ejer begia	120
121	Bein batian Loyolan	120
122	Beti penetan	121
123	Gudariena	121
124	Mutil koxkor bat	122
125	Montebideoko gizon zahar baten arrengurak	123



Imp. Laboratoires, Bayonne

LORAK EGUZKI GABE.

Lorak eguzki gabe, ezin bizi dira.
Gogoak ere jan gabe bizirik ez dauka
Gogoaren bizitza Jainkoa bera da.
Atoz-bada Je-sus gure biotzera.

O-O-O-O-O-O-O-O-O-
KANTA DEZAGUN ALAI.

Kanta dezagun alai, biotz biotzetik
Mariaren izena gloriaz beterik.
Ez dala guretzako naigabe ta miñik.
"Lagundutzen badigu Birgiña zerutik".
(Bi aldiz).

O-O-O-O-O-O-O-O-O-
ATOZ GUGANA.

"Atoz gugana, Jesus laztana, zure
esanak betetzera". Zu zera Errege,
Zu zera Errege, Nauzi ta jabe, nauzi
ta jabe, bizi zu gabe, bizi zu gabe,
gu ezin gera, gu ezin gera.....
Zure maitasuna, nola du eraman, mun-
duak daraman ostasuna, ostasuna,
Euskalerriaz erruki zaite, lur gure
maite Zuk emana, lur gure maite
Zuk emana, lur gure maite Zuk emana.

O-O-O-O-O-O-O-O-

ZUK ZER DEZU.

Zuk zer dezu, Arantzazu, amez, kabi,
otoitz leku, Euskalerria oso osorik
kantari dijoakizu: "Izena bera Aran-
tzazu kanta ederrena dezu, itz bakar
ori mintza orduko kantari jartzen
gaituzu:" (Bi aldiz).

O-O-O-O-O-O-O
AITA ZERUKOA.

Aita zerukoa, maitasun itza.
Emen bildu gera ainguru-osto.
Gure zorigaitzen zendagaillea
arkitu nahiean zugan.

Zugana urbilduz nehirri zerana.
Ezagutu degu barkapen-ura.
Bidea jarraituz, egia agurtuz
laztatzetzen zaitugu, Jainkoa.

Betiko itxaropen, bizitz-itzirri
etzaitut aztuko, negu muiñean.
Gaur gurtu nahi zaitut, egun sentian,
zugana joan nahi dut gauean.....

-O-O-O-O-O-O-O-O-